

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Euskal Herriko Unibertsitatea

Universidad del País Vasco

2016





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	10
III.2 Administrazioko kontratazioa.....	13
III.3 Beste batzuk	15
IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA AURREKONTUAREN	
EGONKORTASUNA	16
IV.1 Finantza analisia	16
IV.2 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna.....	18
V. URTEKO KONTUAK	19
V.1 EHUren kontuak.....	19
V.2 Fundazioen kontuak.....	22
ERANSKINAK	25
A.1 Alderdi orokorrak	25
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea	26
A.3 Langileria-gastuak.....	28
A.4 Funtzionamendu gastuak	34
A.5 Inbertsio errealak, ibilgetua eta ondare garbia	35
A.6 Tasak eta bestelako sarrerak	38
A.7 Jasotako transferentzia arruntak eta kapitalezkoak	40
A.8 Inbertsio finantzario iragankorrak	41
A.9 Zorra	42
A.10 Zordunak.....	42
A.11 Hartzekodunak	43
A.12 Diruzaintza eta ondare sarrerak	44
A.13 Aurrekontu eta ondare emaitzaren arteko berdinkatzea	45
A.14 Administrazioko kontratazioaren analisia	46
A.15 Fundazioak.....	52
ALEGAZIOAK	55



ABREVIATURAS	77
I. INTRODUCCIÓN	79
II. OPINIÓN	80
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	80
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	81
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL	
INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	82
III.1 Presupuesto y contabilidad	82
III.2 Contratación administrativa	85
III.3 Otros	87
IV. ANÁLISIS FINANCIERO Y ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA	88
IV.1 Análisis financiero	88
IV.2 Estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera	90
V. CUENTAS ANUALES	91
V.1 Cuentas de la UPV/EHU	91
V.2 Cuentas de las Fundaciones	94
ANEXOS	97
A.1 Aspectos generales	97
A.2 Presupuesto y contabilidad	98
A.3 Gastos de personal	100
A.4 Gastos de funcionamiento	106
A.5 Inversiones reales, inmovilizado y patrimonio	107
A.6 Tasas y otros ingresos	110
A.7 Transferencias corrientes y de capital recibidas	112
A.8 Inversiones financieras temporales	113
A.9 Deuda	114
A.10 Deudores	114
A.11 Acreedores	115
A.12 Tesorería e ingresos patrimoniales	116
A.13 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	117
A.14 Análisis de la contratación administrativa	118
A.15 Fundaciones	124
ALEGACIONES	127



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

APKLE	1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
APOL	33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.
AZL	Administrazio eta zerbitzuetako langileak.
BEZa	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BGAE	Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia.
EAEKPP	Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Plana.
EAOL	22/2013 Legea, abenduaren 23koa, 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
ED	Errege Dekretua.
EDL	Errege Dekretu Legea.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
EFPL	6/1989 Legea, 1989ko uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EOL	Euskadiren Ondareari buruzko Legea (2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiren Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena).
EUSL	3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal unibertsitate sistemari buruzkoa.
IETB	Ikerketen Emaitzen Transferentzia Bulegoa.
II	Irakasleak eta ikertzaileak.
KEAO	Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
PPN	Publikotasundun Prozedura Negoziatua.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
UE	Unibertsitate Eskola.
ULO	6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa
ULOALO	4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoa aldarazten duena
UUKK	Urteko kontuak.
XG	Xedapen Gehigarria.
ZBM	Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa.



I. SARRERA

EHUren ekonomia-finantza jardueraren 2016ko txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraikiz mamitu dugu eta Epaitegi honen Urteko Lan Programan barne hartua dago.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezketasuna: Legezketasun, aurrekontu, langileria eta administrazio kontratazioaren ataletan.
- Kontularitzakoak: EHUren urteko kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako EHUren kontularitzako aurrekontu eta ondare egoeren kanpoko auditoria txostena aztertzea izan da eta horretarako, auditoreen lan paperetan euskarrituak egotea egiaztatu dugu eta beharrezko irizitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- EHUren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasunari eta efikaziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Gainera, lanaren zabalak EHUk fundazio-zuzkiduraren % 100 eman dien fundazioen gaineko fiskalizazio-lana barne hartu du; horien Urteko Kontuak eranskin modura jaso dira EHUren 2016ko Txosten Ekonomikoan:

- Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa Fundazioa.
- EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa

Berebat, EHUk fundazio-zuzkiduraren % 50 eman dio Unibertsitatea-Enpresa Ikerkuntza Fundazioaren, Jakintza Lanezko Ikerkuntzari (Euskoiker Fundazioa); eta % 33 Euskampus Fundazioari.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Langileria

1. EHUK 2016ko ekitaldian 672.888 euro ordaindu ditu osagarrien eta ordainsarien parekatze kontzeptuan, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan aurreikusi gabe daudenak (ikus A.3).
2. 2016ko abenduaren 31n aldi baterako lan kontratua zuten Irakasle eta Ikertzaileek irakasle-plantillaren % 40ko muga gainditzen zuten, ULoren 48.5 artikuluan finkatutakoa, ULALOK ematen dion idazkeran.

Administrazioko kontratazioa

3. 1,8 eta 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi espedientetan (21 eta 24 zk.), fakturatutako zenbatekoak gainditu egin du urteko gehieneko aurrekontua 118.215 eta 267.585 euroan, hurrenez hurren, eta lizitazioaren eta esleipenaren oinarritzko baldintzak eraldatu dira (SPKLTBren 107. artikulua) (ikus A.14.1).
Bestalde, indarreko kontratuak dituzten prestazioetan, esleitutako zenbatekoa 878.630 euroan gainditzen duten gastuak azaleratu dira (ikus A.14.2).
4. Uda Ikastaroak Fundazioak 366.948 euroren ondasun eta zerbitzuak kontratatu ditu publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe (ikus A.15.2).

Epaitegi honen ustetan, aurreko 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako salbuespenak alde batera, EHUK eta haren fundazioek zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. EHUK Berariazko Geldikinaren atala osatzen duten aurrekontuko aplikazio ugarien eta ikerkuntza kontratuen amaieraren gaineko kontrol ezaren ondorioz (ikus III.1), ezin ondoriorik atera dezakegu horren zuzentasunaz 2016ko abenduaren 31n. Nolanahi dela ere, hori osatzen duten kontu-sail eta programen lagin bat aztertzetik ondorioztatu dugu horietako zenbaiti Gastu Orokorretarako Geldikin izaera eman behar litzaiekeela. Ondare-kontabilitateko terminoetan, horrek esan nahi du "Diru-laguntza bihur daitezkeen epe laburreko zorrak" balantzeko kontu-sailaren saldo zati batek (ikus A.11), zenbatetsi ezin denak, ondare garbiaren atal behar lukeela izan.
2. Ibilgetu materialak bibliografia funtsei dagokien idazpuru bat barne hartzen du, ekitaldi itxieran 22,3 milioi euroren kontularitzako balio garbia zuena erregistraturik (ikus A.5). EHUK ez du funts horien gaineko inbentario banakatu eta balioztatua, 2012tik 2016ra bitarteko ekitaldietan egindako erosketetarako izan ezik, eta honenbestez, ez dezakegu kopuru horren zuzentasunari buruzko ondoriorik atera.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, EHUren eta bere fundazioen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2016ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, 2016ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan, alde batetik, jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten hutsak adierazten dira; eta bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontuko aldaketak

- Aurrekontuko aldaketen erregimena baliatuta 2016ko aurrekontuan 12,6 milioi euroren kredituak zuzkitu ziren eta ekitaldi itxieran kopuru hori kapituluan jaso gordetzen zen aurrekontuko kontu-sail jakinei esleitu gabe. Hona hemen xehapena:

KAPITULUA	TXERTAKETAK	GAIKUNTZAK	Euroak milakotan	
			TRANSFERENTZIAK	GUZTIRA
Langileria-gastuak	6.718	394	6.982	14.094
Funtzionamendu gastuak	3.709	-	(6.717)	(3.008)
Transferentzia arruntak.....	4	-	(44)	(40)
Inbertsio errealak.....	1.407	-	104	1.511
GUZTIRA	11.838	394	325	12.557

Aldaketa horiek berariazkotasun printzipioa urratzen dute, zeinaren arabera haien eraginpeko aurrekontuko kontzeptuak zeintzuk diren berariaz adierazi behar duten.

- 2016ko ekitaldian 7,8 milioi euroren kreditu-transferentziak egin dira eta horiei birbanaketentzat aurreikusita dagoen izapide erraztua ezarri zaie; ez zegokion, baina, araubide erraztu hori baliatzea, aurrekontuko kapitulu ezberdinen artean egin direlako kreditu aldaketak.
- Aurrekontuko aldaketak arautzen dituen araudiari jarraikiz, 2016ko aurrekontuarekin batera onartutakoa, hiru hilean behin Ekonomia Batzordeari gaitutako kredituen xehapena jasotzen duen zerrenda aurkeztu behar zaio. 2016ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhileko gaikuntzak 2016ko azaroaren 3ko Batzorde Ekonomikoari aurkeztu zaizkio eta 4. hiruhilekoak 2017ko uztailearen 10ekoari.

Gastu Unitate Organikoak

EHUK kudeaketa Gastu Unitate Organikoetan deszentralizaturik dauka; unitate horiek aurrekontuaren kudeaketaz, kontabilizazioaz eta horiei lotutako gastuak euskarritzen dituzten ageriez arduratzen dira. Deszentralizazio maila honek zaildu egiten du gastua zuzen kontabilizatzea eta ondorengo kontrola egitea. 2014ko abenduaren 31n GUO kopurua 3.191koa zen eta horietatik 3.213, nagusiki, ikerkuntza, kanpoko kontratu edo kanpoko ekarpenekin finantzaturako ikastaroei dagozkie. Honekin baterako taulak funtzionamendu



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

gastuek eta inbertsio errealek azken ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du, unitate mota hauen bidez kudeatu direnak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2014	2015	2016
2 eta 6 kap. gastuak, Gtu.Unit.Organiko zentralak kudeatutakoak	67.763	62.565	61.898
2 eta 6 kap. gastuak, Gtu.Unit.Organikoek kudeatutakoak eta ikerketa proiektu, kontratu eta ikastaroei dagozkienak	40.123	28.823	18.827
2 ETA 6 KAPITULUETAKO GASTUAK GUZTIRA	107.886	91.388	80.725

Aurrekontua eta Ekonomia Txostena onestean atzerapena

Gobernu Kontseiluak 2016ko ekitaldiko Aurrekontu Proiektua 2016ko otsailaren 4an onartu zuen eta Kontseilu Sozialak aurrekontua urte horretako martxoaren 17an onartu zuen; ordea, ekitaldia hasi aurretik onartu behar zatekeen. Ekonomia txostenari dagokionez, Kontseilu Sozialak 2017ko urriaren 25ean onetsi zuen, EUSLren 106.2 artikuluan aurreikusitako epea gaindituta, urte bakoitzaren lehenengo seihilekoan egitea aurreikusten baitu.

Berariazko Geldikina (ikus A.2)

EHUk aurkeztutako txosten ekonomikoaren arabera, berariazko geldikina 77,3 milioi euro zen 2016ko abenduaren 31n, eta haren % 37,4 ikerketa programen “funtzionamendu gastuak” izeneko kapituluari dagokio, kanpoko finantzaketa bidez gauzatutako ikerketa kontratuak jasotzen dituena.

Geldikina osatzen duten kontu-sail eta programen lagin esanguratsua aztertuta, honako huts hauek azalera dira:

- Errepikariak diren kanpoko kontratuei dagozkien zenbatekoak ekitaldiz ekitaldi gero eta handiagoak dira, jasotako finantzaketak kontratuaren kontura egikaritutako gastua gainditzeko baitu.
- Kanpoko kontratuen kontzeptuko diru-sarreraren atxikipena (% 5), EHUko gastu orokorrak finantzatzera emandakoak; horiek, baina, ez dira gastatzen eta zuzenean berariazko geldikin modura txertatzen dira.
- Itzultzeko dauden diru-laguntza soberakinak; ez dago horien osaera eta saldoaren antzintasunaren xehetasunik.
- Proiektu zaharren geldikinei dagokionez (lehenagoko ekitaldietan abiarazitakoak) exekuzio egoera eta ikerketa kontratuaren azken egoera aztertu beharko litzateke, izan ere, EHUren Estatutuen 233.3 artikuluari jarraiki (aurrerantzean Estatutuak), geldikin hauek berariazko izaera galduko dute egotzi zitzaizen jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzen denean.



Barne kontrola

EHUren Estatutuen 238 artikulua agintzen du unibertsitateak gastu eta sarreraren barne kontrola ziurtatuko duela legezketasun, eraginkortasun eta efizientzia printzipioei jarraiki eta horretarako, Barne Kontrolerako Zerbitzua baliatuko duela, errektorearekiko mendekotasun zuzena eta gerentziarekiko autonomia funtzionala izango duena.

Barne Kontrolerako Zerbitzuaren jarduteko urteko planek EHUren gastu eta sarreraren gaineko azterketa mugatua aurreikusten dute. Hori dela eta, Barne Kontrolerako zerbitzua indartzeko gomendioa luzatzen dugu eta Gastu Unitate Organiko guztien gaineko eskumena izango duen gastuen alde aurretiko kontu ikuskaritza egiteko figura sortzekoa, figura hau duten gainerako erakundeen izaera, ezaugarri eta egiteko antzekoekin, duen izaerari dagokion izen edo egitura emanez.

Langileria

- EHUk 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorraren Oroitidazkian ez du jasotzen 2012ko abenduko ordainsari aparteko eta osagarria kendu izanaren ondorioz bere zerbitzura diharduen langileriak jaso ez duen zenbatekoari buruzko informaziorik; aparteko ordainsaria ordaingabe utzi zen uztailaren 13ko 20/2012 Legearen Errege Dekretuaren ondorioz, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehia sustatzeko neurriei buruzkoa. 2016ko abenduaren 31n, kontzeptu honengatik ordaintzeko dagoen zenbatekoa 5,6 milioi euro da, oso-osorik 2017an ordaindu dena.
- 2016ko azaroaren 3an EHUren Gobernu Kontseiluak Irakasle eta Ikertzaile lan kontratupeko eta funtzionarioen LZ gaurkotzea onartu zuen, EHAAan argitaratu ez dena. Irakasle eta Ikertzaileen LZren azken argitalpena 2015eko uztailaren 23koa da.

III.2 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

Aztertutako kontratuetako akatsak (ikus A.14.1)

2016an esleitutako 18 kontratazio-espeditante aztertu dira, zeinetan esleitutako balioek guztira 10,8 milioi euro egin dituzten, eta aurreko urteetan fiskalizatutako beste 11 espeditante, 2016an 18,5 milioi euroren egikaritza izan dutenak. Honako alderdi hauek nabarmendu ditugu:-

- 2016an aldizkako argitalpen elektronikoetara harpidetzeko hiru kontratu esleitu zaizkie (6, 7 eta 8 espeditanteak) eskusibitateagatik publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta argitalpen horien banaketa-eskubideak zituzten argitaletxeei, guztira 2,6 milioi euroren zenbatekoan. Gomendagarria litzateke espeditantean argitalpen elektroniko horiekiko interesa dokumentatzea, merkatuan izan daitezkeen beste batzuen aldean.
- Guztira 5,2 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutako zortzi espeditantetan (4, 5, 10, 11, 13, 15, 17 eta 18 zk. espeditanteak) prezio irizpidea puntuatzeko baliatzen den formulak prezio baxuenarekiko proportzioa hartzen du abiaburu eta honenbestez, eskaintza aurkezte hutsak puntuak bermatzen ditu, baita eskaintzak tipoa berdintzen duenean ere; horrek desitxuratu egiten du irizpide hau eta balio judizioen arabera irizpideen bidez balio-neurtu beharreko ehuneko-proportzioan eragiten du (SPKLTBren 150. art.).
- Guztira 1,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru espeditantek (2, 13 eta 15 zk. espeditanteak) ez dute betetzen aurreikusitako aldaketetarako bereizten diren mugak eta/edo baldintzak modu argi eta zehatzean zehazteko eskakizuna.
- 2 milioi euroan esleitutako lau espeditantetan (2, 10, 13 eta 15 zk. espeditanteak) balio zenbatetsiaren kalkulua okerra da (SPKLTBren 88. artikulua), ez baitira balizko espeditante-aldaketak barne hartzen eta horietako batean ezta mantentze-lanaren balorazioa ere.
- Guztira 2,1 milioi euroan esleitutako hiru espeditantetan (2, 4 eta 5 espeditanteak) "hobekuntzak" esleipen irizpideen garapena ez da behar hainbatekoa ez karatulan, ez pleguetan ere (SPKLTBren 150. artikulua).
- Springer argitaletxearen aldizkako argitalpen elektronikoetara harpidetzeko espeditantean, 699.562 euroren zenbatekoan esleitutakoan (7. espeditantea), pleguetan aurreikusitako prezioen berrikusketa ez zaio EAOLren 88. xedapen gehigarriari egokitzen, ez baita kostuetara lotzen.
- Guztira 14,6 milioi euroan esleitu eta 2016an 8,2 milioi euroan egikaritutako sei espeditantetan (2, 20, 21, 24, 26 eta 29 zk. espeditanteak) ez dago jaso esparru-akordioaren arabera egindako esleipenen harrera-akta (SPKLTBren 222.2 artikulua).
- 1,5 milioi euroan esleitutako zerbitzu-espeditante batean (17. espeditantea), zerbitzua eman aurreko fase batean lanaren plangintza eta antolamendua balioztatzen duen esleipen irizpideak aurreko esleipendunaren ezagutzaren balorazioa eragin du, izan ere, gogoan hartu da kasu horretan ez dela beharrezkoa EHUKo teknikarien esku-hartzea alde aurreko fase horretan.



- Erakundearen back-a mantendu eta eguneratzeko espedientea publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zen 543.465 euroren zenbatekoan (14. espedientea) eta zerbitzu honen oroitidazkiak justifikatzen du zerbitzu hau soilik egin dezakeela aplikazioen esleipendunak. Aplikazioen erosketa/berritzea mantentze lanekin batera lizitatzeko aukera aztertzea gomendatzen dugu.

Azkenik, azpimarratu behar da gastu-unitate organikoen sakabanatzea aintzat hartuta, beharrezkoa dela EHUK gastuaren egikaritzaren ikuskapena areagotzea, erosketa eta prestazioek legezko estaldura egokia izan dezaten eta, izatez, ez dadin gainditu esleipenen zenbatekoa.

Beste batzuk

- 2016ko ekitaldian zehar izaera bertsuko ondasun eta zerbitzu erosketak egin dira guztira 2,2 milioi euroren zenbatekoan; gure iritzira, EHUK aztertu egin behar lituzke horiek, berdindu daitezkeen hornigaiak eta aurreikusgarriak diren zerbitzuak bereiziz, kontratazioa prozedura bakar batean egiteko moduan (ikus 14.2).
- EHUK 2016an zehar 14 espediente egikaritu ditu zerbitzu publikoak emateko, jabari publikoko ondasunak erabiltzea dakarrena berekin eta denbora zehatz baterako eman ez zirenak (SPKLTBren 23. eta 278. artikulua eta EOLren 72. artikulua eta APOLen 93. artikulua). Gainera, kontratuaren prestazioak eta/edo prezioa justifikatuko duen azterketa ekonomiko-administratiborik ez da egin (APKLEOren 183. eta SPKLTBren 87. artikulua); ez eta ondasunak eskura uzteko akta ere, EHUK eta kontratistak izenpetutakoa (EOLen 69.4 artikulua) (ikus 14.2).
- EHUK 2016ko ekitaldian izenpetu dituen lankidetzak hitzarmenak aztertzean ikusi dugu lau hitzarmenek euren baldintzetan jasotzen dutela kontratu horiek berariaz adierazi gabe urteko aldietan luzatuko direla, iraupen zehatzik finkatu gabe (ikus 14.2).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 BESTELAKOAK

- Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak eskatutako informazioari dagokionez, eta uztailaren 25eko 635/2014 ED aplikatuz, zeinak administrazio publikoetako hornitzaileei batez besteko ordainketa aldia kalkulatzeko metodologia garatzen duen, EHUK 2016ko ekitaldian bete du merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa aldia. Nolanahi den ere, 1,1 milioi euroren zenbatekoarekin egindako 286 ordainketek ez dute SPKLTBren 216. artikulua, 4. atala betetzen, ordainketa epeei dagokiena.



IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

IV.1 FINANTZA ANALISIA

EHU-REN KONTUAK

Azken ekitaldietako bilakaera finantzaria honakoa izan da:

	Euroak milakotan		
	2014	2015	2016
Tasak.....	36.790	35.533	36.320
Kanpoko kontratuak.....	6.298	8.309	6.920
Bestelako sarrerak	5.548	4.961	4.272
Transf. arruntak EAE, urteko gastuaren finantzaketa.....	250.412	251.875	254.807
Transf. arruntak Bestelako diru-laguntza helburudunak.....	104.323	103.194	112.472
Ondare-sarrerak	924	856	893
SARRERA ARRUNTAK	404.295	404.728	415.684
Langileria-gastuak	(305.839)	(321.232)	(321.825)
Funtzionamendu gastuak	(66.053)	(68.611)	(64.029)
gastu finantzarioak	(372)	(389)	(427)
Transferentzia arruntak.....	(6.566)	(6.339)	(5.942)
GASTU ARRUNTAK	(378.830)	(396.571)	(392.223)
EMAITZA ARRUNTA	25.465	8.157	23.461
Kapital transferentziak (sarrerak-gastuak)	11.740	3.903	5.692
Inbertsio errealak (besterentzeetatik garbi).....	(41.834)	(22.777)	(16.696)
KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA	(30.094)	(18.874)	(11.004)
Finantza pasiboak (sarrerak-gastuak)	(2.576)	(2.592)	(2.608)
Finantza aktiboak (sarrerak-gastuak)	1.221	(1)	3.054
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(1.355)	(2.593)	446
EKITALDIKO EMAITZA	(5.984)	(13.310)	12.903
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	(2.344)	786	(4.275)
AURREKONTUAREN EMAITZA	(8.328)	(12.524)	8.628
BERARIAZKO GELDIKINA	82.918	70.766	77.333
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	625	212	3.852
DIRUZAINZA GELDIKINA	83.543	70.978	81.185
ZORPETZEA	23.147	20.555	17.947



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Emaizta arrunta

Gastu arruntak 4,3 milioi euroan (% 1,1) murriztu dira 2015eko ekitaldiaren aldean, nagusiki, funtzionamendu gastuak 4,6 milioi euroan murriztu izanaren ondorioz.

2016ko sarrera arruntak 11 milioi euroan gehitu dira, batik bat Eusko Jaurlaritzaren transferentzia arrunten ondorioz, zeinak 2,9 milioi euroan gehitu diren eta Estatuarenak 9,3 milioi euroan.

Emaizta arrunta 2015ean 8,2 milioi euroren mozkina izatetik 2016an 23,5 milioi eurorena izatera aldatuko litzateke.

Kapitalezko eragiketak

Fiskalizazio-gai izan den ekitaldian gora egin dute kapital-transferentziek eragindako sarrerak 2015eko ekitaldiaren aldean (% 45,8) eta inbertsio errealak, berriz, % 26,7 murriztu dira, 11 milioi euroren defizita eraginez 2016an, eragiketa arrunten superabit bidez finantzatu dena.

Zorpetzea

EHUK ez du zorpetzea baliatu 2016ko ekitaldian. Izatez, zorpetzeak berriz egin du behera 2016an, seigarren urtez jarraian (ikus A.9).

Diruzaintzako geldikina

2016an gora egin dute berariazko geldikinak eta gastu orokorretarako geldikinak 2015eko ekitaldiaren aldean.

Ondorioa

Emaizta arruntak gora egin du, batik bat, transferentzia arruntek gora egin dutelako. Berebat, kapital-eragiketengatiko defizitak behera egitea, nagusiki, egindako inbertsioak murriztu izanaren ondorio da. Honenbestez, EHUren inbertsio gaitasuna ez da nabarmen hobetu eta inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa da, dela kapitalezko diru-laguntza bidez, dela beste zorpetze mota bat baliatuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

Unibertsitateen Lege Organikoaren 81. artikulua, 2. atalean agintzen du unibertsitateen aurrekontuek eta horien likidazioek berariazko aipamena egin behar diotela finantza oreka eta iraunkortasun printzipioak betetzeari.

Komeni da azpimarratzea Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailera Nagusiak adierazi duela EHU, EAEn Administrazio Publikoak Sektorearen atal dela. EHUren 2016ko urterako Urteko Kontuek gai honi buruzko berariazko atala besarkatzen dute eta bertan ondorioztatzen da “EHUren 2016ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioak finantza oreka eta iraunkortasun printzipioak betetzen dituela”.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 EHU-REN KONTUAK

A. 2016-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

KAPITULUA	ERANSK.	HASIERAKO		B.BETIKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGAZ.	KOB.R./ ORDAINK.	KOB.R./ORDAIN. GABE	% EGIK.
		AURREK.	ALDAK.					
SARRERAK								
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.6	45.740	4.539	50.279	47.512	44.746	2.766	94,50
4. Transferentzia arruntak	A.7	351.101	19.795	370.896	367.279	303.572	63.707	99,02
5. Ondare sarrerak	A.12	460	265	725	893	766	127	123,17
7. Kapital transferentziak	A.7	5.000	884	5.884	5.692	5.387	305	96,74
8. Finantza-aktiboen bariazioa		-	73.678	73.678	3.186	3.186	-	4,32
SARRERAK GUZTIRA		402.301	99.161	501.462	424.562	357.657	66.905	84,66

GASTUAK

1. Langileria-gastuak	A.3	308.892	44.753	353.645	321.825	321.381	444	91,00
2. Funtzionamendu gastuak	A.4	69.999	32.774	102.773	64.029	58.639	5.390	62,30
3. Gastu finantzarioak		209	245	454	427	409	18	94,05
4. Gtu. arrun transf. eta diru-lag. ...		2.032	7.623	9.655	5.942	5.718	224	61,54
6. Inbertsio errealek	A.5	18.569	13.526	32.095	16.696	15.075	1.621	52,02
8. Finantza-aktiboen bariazioa		100	132	232	132	132	-	56,90
9. Zorraren amortizazioa	A.9	2.500	108	2.608	2.608	2.608	-	100,00
GASTUAK GUZTIRA		402.301	99.161	501.462	411.659	403.962	7.697	82,09

B. EKITALDI ITXIEN BILAKAERA (*)

Euroak milakotan

	HASIER.	BALIOG.	KOB.R./	AZKEN
	ZORRA		ORDAIN.	ZORRA
ZORDUNAK	83.098	(6.175)	(54.151)	22.772
HARTZEKODUNAK	(16.757)	1.900	14.662	(195)
GUZTIRA	66.341	(4.275)	(39.489)	22.577

(*) HKEEk mamitutako taula EHUK emandako datuak abiaburu hartuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
DIRUZAINZA GELDIKINA, 15.12.31-N	70.978
Eskubide aitortuak	424.562
Obligazio aitortuak	411.659
EKITALDIAREN EMAITZA	12.903
Eskubide kitatuak baliogabetzea	(6.175)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	1.900
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	(4.275)
AURREKONTUAREN EMAITZA	8.628
KAUDIMENGAB. ZUZKID. BARIAZ.	1.579
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	10.207
DIRUZAINZA GELDIKINA, 2016.12.31-N	81.185
BERARIAZKO GELDIKINA	77.333
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	3.852

D. DIRUZAINZA GELDIKINA GAUZATZEA	Euroak milakotan
Diruzaintza (A.12).....	12.603
Zordunak.....	100.499
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko zordunak (A.10).....	66.905
Ekitaldi itxietako aurrekontuko zordunak (A.10)	22.772
Aurrekontuz kanpoko kontu zordunak (A.10)	15.863
zalantzako kobragarritasunekoak (A.10).....	(5.041)
Hartzekodunak	(31.917)
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko hartzekodunak (A.11)	(7.697)
Ekitaldi itxietako aurrekontuz kanpoko zordunak (A.11)	(195)
Aurrekontuz kanpoko kontu hartzekodunak (A.11).....	(24.025)
DIRUZAINZA GELDIKINA, 2016.12.31-N	81.185



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. EGOERAREN BALANTZEA 2016 ETA 2015-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2016.12.31	2015.12.31	PASIBOA	ERANSKINA	31.12.2016	31.12.2015
AKTIBO EZ ARRUNTA		1.227.661	1.244.085	ONDARE GARBIA		1.188.795	1.199.868
Ibilgetu ukiezina	A.5	5.006	5.635	Ondarea	A.5	1.102.694	1.102.694
Ibilgetu materiala	A.5	1.218.612	1.234.269	Sortutako ondarea	A.5	34.619	46.479
Finan. inberts. epe luzera	A.8	4.043	4.181	Egozteko dauden ondare gehikunt.	A.5	51.482	50.695
AKTIBO ARRUNTA		114.314	117.714	PASIBO EZ-ARRUNTA		20.139	23.175
Izakinak		1.411	1.512	Epe luzeko hornidurak	A.11	813	767
Gestor. eragik. zord. aurrek.)	A.10	84.636	76.478	Epe luzeko zorrak	A.11	19.326	22.408
Zord. eta kobr. beste knt. b.	A.10	14.088	16.349	PASIBO ARRUNTA		133.041	138.756
Epe motzeko fin. inber.	A.8	769	802	Epe laburreko zorrak	A.11	82.732	77.797
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok. ...	A.12	13.410	22.573	Hartzek. eta ordaint. bst knt b. ...	A.11	28.604	37.042
				Aldizkatzeagatikoko doikuntzak		21.705	23.917
AKTIBOA, GUZTIRA		1.341.975	1.361.799	PASIBOA GUZTIRA		1.341.975	1.361.799

2016 eta 2015-EKO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2016	2015		2016	2015
Langileria-gastuak	321.825	321.234	Zerga sarrerak	38.123	34.788
Emandako transf. eta diru-lagun	5.942	6.339	Jasotako transf. eta diru-laguntzak	362.808	369.922
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	67.015	71.040	Salmenta garbiak eta zerb. ematea ..	8.415	11.916
Ibilgetuaren amortizazioa	31.557	32.022	Izak. bariatz. eta balioaren narriad.	(101)	4
			Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	3.023	3.008
KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	426.339	430.635	KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	412.268	419.638
			KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(14.071)	(10.997)
			Balio narriadura eta ibilgetu ez finantz. ..		
			Ibilg. ez finantz. eta salgai dauden aktib...	(41)	(3.928)
			Arruntak ez diren beste kontu sail batz. ...	1.160	931
			ERAK. EZ FINANTZ. EMAITZA	(12.952)	(13.994)
			Sarrera finantzarioak	-	10
			gastu finantzarioak	(417)	(367)
			Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo		
			eta pasiboen besterentzeak	1.510	(141)
			FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	1.093	(498)
			EKITALDIKO EMAITZA	(11.859)	(14.492)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 FUNDAZIOEN KONTUAK

V.2.1 MEDIKUNTZA ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA FUNDAZIOA

EGOERAREN BALANTZEA				Euroak	
AKTIBOA	2016.12.31	2015.12.31	PASIBOA	2016.12.31	2015.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	595.100	595.100	ONDARE GARBIA	600.423	600.423
Ondare historikoko ondasunak	595.100	595.100	Fundazioaren dotazioa.....	595.100	595.100
			Aurreko ekitaldietako soberakinak	5.323	5.323
AKTIBO ARRUNTA	5.323	5.323	PASIBO ARRUNTA	-	-
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz.	5.323	5.323			
AKTIBOA, GUZTIRA	600.423	600.423	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA	600.423	600.423

EMAITZEN KONTUAK, 2016-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak	
Langileria-gastuak	22.149	22.149	Berezko jardueraren sarrerak.....	-	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. .	13.702	9.351	Diru-lagunt., dohaintz. eta legatuak.....	35.851	31.500
KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	35.851	31.500	KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	35.851	31.500

JARDUERAREN SOBERAKINA

Balio narriadura eta ibilgetu ez finantz. besterentz. emaitza eta salgai dauden akt.	-	-
--	---	---

ERAGIKETA EZ FINANTZ. EMAITZA

Sarrera finantzarioak.....	-	-
Gastu finantzarioak.....	-	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak.....	-	-

ERAG. FINANTZ. EMAITZA	-	-
-------------------------------	---	---

EKITALDIKO EMAITZA	-	-
---------------------------	---	---



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2.2 EHU-REN UDA IKASTAROA FUNDAZIOA

EGOERAREN BALANTZEA						Euroak	
AKTIBOA	2016.12.31	2015.12.31	PASIBOA	2016.12.31	2015.12.31		
AKTIBO EZ ARRUNTA	99.860	60.439	ONDARE GARBIA	69.371	67.853		
Ibilgetu ukiezina.....	91.810	48.530	Fundazioaren dotazioa	30.051	30.051		
Ibilgetu materiala.....	8.050	11.909	Aurreko ekitaldietako soberakinak	37.802	30.385		
			Ekitaldiko soberakinak.....	1.518	7.417		
AKTIBO ARRUNTA	215.134	259.143	PASIBO ARRUNTA	245.623	251.729		
Berezko jarduer. zordunak.....	52.931	52.726	Epe laburreko zorrak.....	4.411	-		
Zord. eta kobratz. beste kontu b.....	90.889	73.361	Hornitzaileak.....	171.736	232.136		
Eskud. eta b. akt. lik. baliokide batz. .	71.314	133.056	Bestelako zorrak administrazio publikoekin	59.636	14.990		
			Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	9.840	4.603		
AKTIBOA, GUZTIRA	314.994	319.582	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA	314.994	319.582		

EMAITZEN KONTUAK, 2016-KO ABENDUAREN 31-N						Euroak	
	2016	2015		2016	2015		
Langileria-gastuak	412.168	332.608	Berezko jarduerag. sarrerak.....	993.403	1.179.745		
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ..	1.154.227	1.096.603	Jasotako transf. eta diru-laguntzak.....	624.092	277.550		
Ibilgetuaren amortizazioa	22.319	20.427	Beste emaitza batzuk	7.317	(355)		
KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	1.588.714	1.449.638	KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	1.624.812	1.456.940		
			JARDUERAREN SOBERAKINA	36.098	7.302		
			Balio narriadura eta ibilgetu ez finantz.				
			besteren. emaitza eta salgai dauden akt....	(34.530)	-		
			ERAGIKETA EZ FINANTZ. EMAITZA	(34.530)	-		
			Sarrera finantzarioak.....	-	-		
			Gastu finantzarioak.....	-	-		
			Trukaneurri aldeak.....	(50)	115		
			ERAG. FINANTZ. EMAITZA	(50)	115		
			EKITALDIKO EMAITZA	1.518	7.417		





ERANSKINAK

A.1 ALDERDI OROKORRAK

EHU zuzenbide publikoko erakundea da, nortasun eta gaitasun juridikoa duena eta ondare propioa. Bere eskumeneko esparruan, EAEn goi-mailako irakaskuntzaren zerbitzu publikoa ematen du, irakasletza, azterlan eta ikerketa bidez.

EHU Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusek osatzen dute eta askotariko helburuen arabera, era honetara egituratzen da:

- Sail eta Institutuak, irakaskuntza eta ikerketarako.
- Ikastetxeak, irakaskuntza ordenatu eta antolatzeko, koordinazio akademikoa planifikatu eta gauzatzeko eta administrazioko kudeaketa unibertsitateko tituluak eskuratzeko.
- Zerbitzu nagusiak eta bestelako Unitateak, unibertsitate-izaera aitortua zaienak.

Legeria

- 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa eta ondorengo aldaketak (4/2007 Lege Organikoa eta 8/2013 Lege Organikoa).
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzkoa.
- 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Eusko Jaurlaritzarena, Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAeko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 2012ko ekainaren 25eko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Plana onesten duena.
- 14/2012 Errege Dekretu Legea, apirilaren 20koa, hezkuntzaren alorrean gastu publikoa arrazionalizatzeko presako neurriei buruzkoa.
- 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Herriko Fundazioei buruzkoa.

Arau hauei, gainera, langileen gaietan ezargarria den araudi berariazkoa gehitu behar zaie (ikus A.3).

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak

EHUren 2016ko ekitaldirako aurrekontua 2016ko otsailaren 4ko Gobernu Kontseiluak eta 2016ko martxoaren 17ko Gizarte Kontseiluak onartu zuten.

Hona hemen ekitaldian egindako aurrekontuko aldaketak:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	GELDIKINEN TXERTAKETA	KREDITU GAIKUNTZA	BAJAK BALIOGAB.	TRANSF. ETA BIRSAILKAP.	GUZTIRA
Langileria-gastuak.....	24.940	10.100	(1)	9.714	44.753
Funtzionamendu gastuak.....	31.795	13.324	(1.348)	(10.997)	32.774
Gastu finantzarioak.....	8	4		233	245
Gtu. arr. transf. eta diru-lag.	2.483	4.681	(22)	480	7.622
Inbertsio errealak.....	11.541	2.665	(1.010)	330	13.526
Finantza aktiboen bariazioa.....	-	-	-	132	132
Zorren amortizazioa.....	-	-	-	108	108
GUZTIRA	70.767	30.774	(2.381)	-	99.160

EHUk 2016ko aurrekontura 70,8 milioi euroren kreditu geldikinak txertatu zituen, 2015eko abenduaren 31ko berariazko geldikinarekin zenbateko berean finantzatuak. Txertaketa horiek 2016ko apirilaren 20an onartu ziren.

28,4 milioi euroren kreditu gaikuntzak, baliogabetzeengatikoko bajak kenduta, honako diru-sarrera hauen bitartez finantzatzen dira:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	
Kanpoko kontratuak.....	2.600
Hortz klinika.....	435
Tasak.....	600
Beste kontzeptu batzuk.....	903
TASEK ETA BESTELAKO SARREREK ERAGINDAKO SARRERAK	4.538
EAE.....	12.928
Estatuko Administrazioa.....	3.179
Enpresa, fundazio eta elkarrekin pribatuek.....	1.551
Bestelako diru-laguntzak.....	2.137
TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO SARRERAK	19.795
ONDARE SARRERAK	265
KAPITAL TRANSFERENTZIENGATIKO SARRERAK	884
FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETAGATIKO SARRERAK	2.911
GUZTIRA	28.393



Aurrekontuaren exekuzioa

Sarrera aurrekontuaren gauzatze maila % 98koa izan da, finantza aktiboen bariazioa aintzat hartu gabe.

Gastuen aurrekontuak % 82ko egikaritzea izan du. Kapituluaren araberrako azterketatik, honako hau azpimarratu behar dugu:

- Funtzionamendu gastuak (% 62,3) Egikaritzea txikia izan duelako (% 0,3) nabarmentzekoa da kanpo kontratuen funtzionamendu gastuei dagokien kontu-saila. Kontu-sail horrek gastu horiek finantzatzeko dagoen kreditu erabilgarri guztia barne hartzen du, gerora dagozkion aurrekontuko aplikazioetara aldatzen dena, segun zein den egiaz egindako gastuen izaera.
- Transferentzia arruntak (% 61,5) Egikaritzea maila txikia, batik bat, Erasmus Programari dagokio.
- Inbertsio errealak (% 52). Ekipamendu zientifikoko kontu-sailek egikaritzea maila txikia izan dute eta eraikinak eta bestelako eraikuntzak kontu-sailean aurrekontu egindako lanen egikaritzan atzeraldiak izan dira.

Berriazko geldikina

EHUren berriazko geldikina egikaritzeko dauden kredituek osatzen dute, ikerketa-proiektu eta azpiegiturei, xede jakin baterako kanpoko baliabideez hornitutako kontratuetatik datozeinei eta zorpetutako konpromisoak besarkatzen dituztenei dagozkienak, arrazoi justifikatuak direla medio gauzatu ezin izan direnak. Kreditu horien saldoak esleipena jaso zuten unitate funtzionalen eskura geratzen dira (Estatutuen 233.2 art.).

EHUK Txosten ekonomikoan aurkeztutako berriazko geldikina 2016ko abenduaren 31n 77,3 milioi eurorena da; hona hemen xehapena:

PROGRAMAK	Euroak milakotan					
	LANGILE GASTUA	FUNTZIONAM. GASTUAK	FINANTZA GASTUAK	TRANSFER. ARRUNTAK	INBERTSIO ERREALAK	GUZTIRA
Irakasletza.....	222	1.980	-	321	172	2.695
Ikerketa	26.369	28.885	1	235	9.771	65.261
Administrazioko kudeaketa eta gastu orokorrak ..	4	27	-	-	25	56
Ikasleak, kirola, kultura eta liburutegia	54	234	-	170	11	469
Inbertsioak eta azpiegitura.....	-	-	-	-	1.192	1.192
Campusa garatzeko urteanitzeko inbertsioak.....	-	-	-	-	1.243	1.243
Informatika	-	79	-	-	-	79
Nazioarteko harremanak.....	243	806	6	2.225	2	3.282
Ikerketa sustatu eta pizgarritzea	29	131	-	-	27	187
Prestakuntza	113	23	-	-	-	136
Ikerketa eta transferentzia.....	299	1.133	-	-	1.301	2.733
GUZTIRA	27.333	33.298	7	2.951	13.744	77.333

A.3 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen langile gastuen kapituluaren egikaritza kontzeptuka:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2016	2015	% BARIAZIOA 16/15
irakasle funtzionarioa.....	112.796	117.599	(% 4,1)
Irakasle elkartuak	5.353	5.125	% 4,4
Irakasle kontratatuak.....	52.900	48.288	% 9,6
Irakasle ikertzaileak	15.572	16.213	(% 4,0)
Irakasle ordezkoak	4.915	4.283	% 14,8
Graduondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak eta beste.....	3.926	4.291	(% 8,5)
Beste irakasle batzuk.....	11.039	11.906	(% 7,3)
II	206.501	207.705	(% 0,6)
Administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioak.....	46.507	45.908	% 1,3
Admin. eta zerbitz. langile lan kontratupekoak eta behin-behinekoak	22.441	22.260	% 0,8
Graduondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak eta beste.....	114	109	% 4,6
AZL	69.062	68.277	% 1,1
Kotizazio sozialak.....	44.677	43.419	% 2,9
Itzarri BGAEari ekarpena	8	10	(% 20,0)
Bestelako gastuak	1.577	1.822	(% 13,4)
GUZTIRA	321.825	321.233	(% 0,2)

EHUren zerbitzura diharduen langileria

Langileak honako atal hauetan sailkatzen dira:

A- Irakasleak eta Ikertzaileak

- Unibertsitateko irakasleen kidegoak: Unibertsitateko Katedradunak eta Unibertsitateko Irakasle Titularrak Unibertsitate Eskolako Katedradun eta Irakasle Titularrak desagertzeaz dauden kategoriak dira.
- Lan-zuzenbideko erregimenean kontrataturiko irakasleak: ULok autonomia erkidegoei aitortzen die irakasle kontratatuaren erregimena arautzea. EAEren kasuan, arauketa hori EUSLn eta martxoaren 4ko 40/2008 Dekretuan dago jasoa, EHUko irakasle eta ikertzaileen erregimenari buruzkoan. Honako kategoria hauek bereizten dira:
 - Iraunkorra: irakasle osoak, agregatuak, ikertzaileak eta doktore-ikertzaileak.
 - Aldi baterakoak: irakasle atxiki, laguntzaile, elkartu, emeritu, bisitari, ikertzaile edo ikerketa proiektu bat egiteko obra edo zerbitzu-kontratua duten teknikari eta prestatzen ari diren ikertzaileak.

B- Administrazio Zerbitzuetako Langileak

- Funtzionarioak eta lan-kontratupekoak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ordainsarien bariazioa

EHUko langileei ordaindutako ordainsariek 2016ko ekitaldian % 1eko igoera izan dute 2015eko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 19.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarriak

EUSLk 34. artikuluan dio Eusko Jaurlaritzak ordainsari gehigarriak ezarri ditzakeela irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa arloan, egoki iritzitako irizpideen arabera. Eusko Jaurlaritzari dagokio ordainsari mugak finkatzea eta EHUren Gizarte Kontseiluari esleipen banakakoa erabakitzea, aldezturik Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitate Agentziak merezimenduen balorazioa eginda.

2004ko abenduaren 21ean akordio bat izenpetu zuten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta EHUK, finantzaketa eredu egonkor bat finkatu eta ordainsari osagarriak ezartzeko. Osagarri mota honi dagokionez, EAEk osagarri horien % 85 eta % 90 bitarteko ehunekoa finantzatuko zuela erabaki zen.

Gerora, honako dekretu hauek onartu ziren: 209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, EHUko irakasle eta ikerlarien gehigarritzko ordainsari osagarriei buruzkoa, 2011n martxoaren 29ko 64/2011 Dekretu bidez aldarazitakoa; eta 41/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, EHUko irakasle eta ikerlarien ordainsariei buruzkoa, zeinak 3.b artikuluan osagarri hauek ordainsari osagarrien atal modura jasotzen dituen, Irakasle eta Ikerlariari ordaingarri direnak.

2016ko ekitaldian zehar osagarri hauen kontzeptuan 18,8 milioi euro ordaindu dira, % 85ean EAEk finantzatzen dituenak.

EHUK ez zuen irakasle eta ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarrien deialdirik egin 2011tik 2014ra bitartean. Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak urteko deialdia ez egitea zuzenbidearen aurkakotzat jo zuen 2014ko martxoaren 18ko epai bidez. 2015ean urte bereko deialdia onartu zen, atzera indarririk ez duena.

2016an, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren irizpideei jarraikiz, EHUren Gobernu Kontseiluak 2013 eta 2014ko ekitaldietako deialdiak onartu zituen eta Gizarte Kontseiluak onartu zain daude; ebaluatu gabe dago horrek eragindako ondorio ekonomikoa.

2017an Auzitegi Gorenak balio gabe utzi du 2014ko Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, zeinak urteko deialdia ez egitea zuzenbidearen aurkako izendatzen baitzuen Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak ez izateagatik, berak ordaintzen baitu osagarrien % 85. Berebat, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak 2017ko ekainaren 20ko epaian adierazten du gizarte-jurisdikzioak ez duela eskumenik eta honenbestez, baliogabe uzten du gehigarritzko ordainsari osagarrien urteko deialdiei dagokienez gauzatutako tramitazio guztia.

Bosturtekoak

2016ko maiatzaren 3an Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai batek aldi baterako lan-kontratuko langileei aitortzen die 2015eko irakasletzako merituen

ebaluazioa eskatzeko eskubidea (bosturtekoak), EHUko irakasle eta ikertzaileen errektore-ordearen 2015eko azaroaren 11ko Ebazpenari jarraikiz. Epai hau betearazteko, bosturtekoen deialdiak onartu dira aldi baterako lan-kontratuko langileentzat, 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldietakoak.

2018ko apirilaren 26ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartu da aldi baterako lan-kontratuko langileek jaso beharreko bosturtekoaren zenbatekoa irakasle lankide iraunkorrarentzat finkatutakoarekin parekatzea. EHUK ordaindu beharreko zenbatekoa langile hauei 2015-2017 aldirako aitortutako bosturtekoen kontzeptuan 2,2 milioi eurorena da eta horietatik 1,4 milioi euro 2015 eta 2016 ekitaldietakoak dira. Kopuru hauek 2018 eta 2019 bitartean ordainduko dira.

Bestelako ordainsariak

Unibertsitateak ordainsari osagarriak eta parekatzeak ordaindu ditu, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuak arautu ez dituenak. Osagarri hauek 2016ko ekitaldian 672.888 euroren gastua eragin dute; hona hemen xehapena:

- Lanaldi osoko dedikazioa duten irakasleek % 0,68ko banakako ordainsari osagarria jasotzen dute 1992ko urteko ordainsari osoen gainean, Gizarte Kontseiluak 1993ko ekainaren 8an onartutakoa. 2016an ordaindutako kopurua 274.701 euro izan da.
- Errektoretzaren 1992ko abenduaren 30eko Ebazpen bitartez ordainsarien parekatzea onartu zen unibertsitate eskoletako irakasle titularren -doktore gradua duten eta lanaldi osoan dihardutenak- eta fakultateko irakasle elkartuen -doktore gradua dutenak eta lanaldi osoan dihardutenak- artean. 2015ean parekatze honen ondorioz ordaindutako zenbatekoa 398.187 euro izan da.

Graduondoko ikastaroa eta ikerketa kontratuak

Ilek eta AZLeK graduondoko ikastaroetan eta ikerketa kontratuetan parte hartzeagatik jasotako ordainsari gehigarriak, honako hauetan xehatzen dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2016	2015	% BARIAZ. 16/15
Ikerketa kontratuetan parte hartzea.....	2.245	2.349	(% 4,4)
Graduondoko ikastaroetan parte hartzea.....	630	689	(% 8,5)
Selektibitateko epaimahaietan parte hartzea.....	469	466	% 0,6
Beste batzuk (mintegiak, uda ikast., prestakuntza, etab.)..	433	607	(% 28,7)
GUZTIRA	3.777	4.111	(% 8,1)



Irakasleei parte hartzen duten jarduera bakoitzean egiten zaizkien ordainketak urriaren 10eko 1930/1984 EDk arautzen ditu, proiektu zientifikoak, teknikoak edo artistikoak egiteko eta espezializazio ikastaroak gauzatzeko bateragarritasunari dagokionez. 2016an kontzeptu hauengatik jasotako batez besteko ordainsaria 2.845 euro izan zen, guztira 1.301 pertsonari zegokiena (irakasle eta ikertzaile guztien gainean % 23,4 inguru).

Borondatezko erretiroengatiko kalte-ordainak

2012ko otsailaren 23an egindako bilkuran, EHUren Gobernu Kontseiluak erabaki zuen 2012an bertan behera uztea erabaki eta hitzarmen guztiak borondatezko erretiroengatiko kalte-ordainei zegozkien ataletan. 2013ko martxoaren 21ean eta 2014ko urtarrilaren 30ean Erabaki horren indarraldia 2013 eta 2014ko ekitaldietara hedatzea erabaki zen eta honenbestez, ez zen aipatutako ekitaldietan borondatezko erretiro pizgarridunei lotutako gasturik erregistratu.

2015eko apirilaren 22an, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren epaiak zuzenbidearen aurkako iritzi eta baliogabe utzi zuen 2012ko otsailaren 23ko Erabakia; halaber, baliorik gabe utzi zituen 2013 eta 2014ko luzatzeko erabakiak. Gerora, 2015eko urriaren 27ko eta azaroaren 30eko ebazpen bitartez, EHUko idazkari nagusiak 2012, 2013 eta 2014 urteetan erretiroa hartu zuten langileei erretiroagatiko kalte-ordainak ordaintzeko prozedura finkatu zuen. Kalte-ordainak 2015eko Aurrekontuaren kontura erregistratu ziren eta guztira 5,9 milioi euro egin zituzten. Gainera, 2015eko ekitaldian urte horretan erretiroa hartutako langileei ordaindutako kalte-ordainak erregistratu ziren, 3 milioi euroren zenbatekoarekin. 2016ko ekitaldian, 6,7 milioi euroren kalte-ordainak erregistratu dira.



Lanpostuen Zerrenda eta Egiatzko Plantilla Irakasleak eta Ikertzaileak

Langile kopurua

KONTZEPTUA	LZ ABENDUAREN 31-N			PLANTILLA ABENDUAREN 31-N		
	2016	2015	% Bariaz.16/15	2016	2015	% Bariaz.16/15
Unibertsitateko katedradunak.....	451	428	% 5,4	389	402	(% 3,2)
Unibertsitate eskoletako katedradunak	32	38	(% 15,8)	27	31	(% 12,9)
Unibertsitateko titullarrak	1.110	1.135	(% 2,2)	1.026	1.084	(% 5,4)
Unibertsitate eskoletako titullarrak.....	381	438	(% 13,0)	334	402	(% 16,9)
Unibertsitateko elkartuak.....	768	756	% 1,6	652	609	(% 7,1)
Unibertsitate eskoletako elkartuak	161	164	(% 1,8)	108	106	% 1,9
Unibertsitateko irakasle lankideak	120	136	(% 11,8)	117	128	(% 8,6)
Unibertsitate eskoletako irakasle lankideak..	86	94	(% 8,5)	82	85	(% 3,5)
Irakasle agregatuak.....	618	527	% 17,3	506	481	% 5,2
Irakasle doktore ikertzaileak.....	58	54	% 7,4	53	47	% 12,8
Irakasle osoak	12	4	% 200,0	5	4	% 25,0
Soin Hezkuntz. Euskal Erakund. irakasleak ..	31	33	(% 6,1)	31	32	(% 3,1)
Nautikako irakasle numerarioak	2	3	(% 33,3)	2	2	(% 0,0)
Irakasle lankideak.....	40	33	% 21,2	38	32	(% 18,8)
Irakasle atxikiak.....	529	503	% 5,2	352	333	% 5,7
GUZTIZKO PARTZIALA	4.399	4.346	% 1,2	3.722	3.778	(% 1,5)
Bitarteko lan-kontratud. ordezkapeneng.				643	593	% 8,4
Ikertzaileak				1.077	1.201	(% 10,3)
Bestelako txikiago batzuk.....				117	72	% 62,5
GUZTIRA				5.559	5.644	(% 1,5)

ULOALoren 1. eta 2. xedapen gehigarriek, unibertsitate eskoletako katedradun eta titularrei buruzkoek, euren kideak Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoan integratzea aurreikusten dute. Alabaina, azken kategoria profesional honen plantilla ez da hazi 2016an, izan ere amortizatu diren plazek irakasle atxikiaren plazak sorrarazi dituzte.

Azken plaza hauek, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen 21. artikulua arabera, karrera akademikoa hasten dutenentzat gordeak daude eta ezin da kontratazio molde hau 4 urtez baino gehiago luzatu; ez dute nahitaez ondoz ondokoak izan behar. Irakasle atxikiaren plantillaren eta LZren igoera esanguratsua, batik bat, unibertsitate eskoletako katedradun eta titularren plaza hutsak eraldatzen dator, arestiko paragrafoan azaldu dena.

EAEren 2011ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen 9. xedapen gehigarriak 4 urteko epea finkatzen zuen kontraturiko IIak irakasle lankide edo antzeko beste irakasle figura batzuen moldepean jasotzeko, irakasle agregatuaren kategorian. Epe hori 2017ko abuztuaren 31ra arte luzatu zuen EAEren 2015eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legearen 11. xedapen gehigarriak, eta ondoren, 2020ko abuztuaren 31ra arte EAEren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2017ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2017 Legearen 14. xedapen gehigarriak.

Unibertsitateen Lege Organikoaren 53. artikulua arabera, irakasle elkartuen kontratuak gaitasun aitortua duten adituekin egingo dira, lanbide jardura unibertsitateko esparru akademikoaz kanpo dutela egiaztatzen dutenekin eta kontratu horiek aldi baterakoak izango dira, lanaldi partzialean. 2016ko ekitaldian lanbide kategoria honentzat sortutako plaza guztiak baldintza horietara egokitzen dira.

2015eko azaroaren 3ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2016ko irailaren 30eko irakasle eta ikertzaile funtzionario eta lan kontratadunen lanpostu zerrenda. Lanpostu zerrenda hau ez da EHAAan argitara eman.

B- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

KONTZEPTUA	LZ ABENDUAREN 31-N			PLANTILLA ABENDUAREN 31-N		
	2016	2015	% Bariaz. 16/15	2016	2015	% Bariaz. 16/15
Behin-behinekoak	20	20	% 0,0	19	20	(% 5,0)
Karrerako funtzionarioak	1.144	1.144	% 0,0	658	684	(% 3,8)
Bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsean	-	-	-	346	332	% 4,2
Lan kontratuko langile finkoak	404	404	% 0,0	84	91	(% 7,7)
Bitarteko langileen kontrat. lanp. hutsagatik ..	-	-	-	(*) 300	301	(% 0,3)
GUZTIZKO PARTZIALA	1.568	1.568	% 0,0	1.407	1.428	(% 1,5)
Bitarteko funtzionarioak lanen pilaketagatik edo aldi baterako programak				164	164	% 0,0
Ordezko bitarteko funtzionarioak				186	159	% 17,6
Lanak metatzeagatik kontratuak				5	2	% 150,0
Ordezkapenagatik bitarteko kontratuak				46	35	% 31,4
Erretiro adina aurreratzeagatik kontratuak				13	16	(% 18,8)
Errelebo kontratuak				10	13	(% 23,1)
Obra edo zerbitzu jakinagatik kontratuak				(*) 48	46	% 4,3
GUZTIRA				1.879	1.863	% 0,86

(*) Guztira, zortzi langile barne-hartzen dira, epai bidez lan kontratu mugagabeko izaera eman zaienak, sei "lanpostua hutsik egoteagatik bitarteko kontratuetan" eta bi "Obra edo zerbitzu jakinerako kontratuetan".

Azkenik, EAEk ez du baimendu EHUren Irakasle eta ikertzaileen eta Administrazio eta zerbitzuetako langileen kostua, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoaren 81.4 artikulua eta Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko Legearen 105.2 artikulua agintzen duten moduan.

Enpleguaren Eskaintza Publikoa

A- Irakasleak eta Ikertzaileak

EHUren Gobernu Kontseiluaren 2016ko uztailaren 7ko Erabaki bitartez (2016/07/20ko EHAA), 2017ko ekainaren 15eko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz aldarazitakoa



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

(2017/10/07ko EHAA), 2016ko urterako Enplegu Eskaintza Publikoa onartu zen honako plaza hauetarako:

KATEGORIA	LANPOSTU KOP.
Unibertsitateko titularrak.....	26
Irakasle osoak	2
Doktore ikertzaileak	15
Irakasle agregatuak.....	44
GUZTIRA	87

Enplegu Eskaintza Publiko honetatik 2016 eta 2017ko ekitaldietan 76 plaza deitu dira eta 2015eko EEEko 50 plazetatik 2015, 2016 eta 2017an 48 plaza deitu dira.

B- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

EHUren 2016ko uztailaren 7ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez (2016/08/10eko EHAA) 2016. urterako lan kontratudun administrazio eta zerbitzuetako langileen Enplegu Eskaintza Publikoa onartu zen, zeinetan 44 plaza barne hartu diren, Txosten hau idatzi dugun datan deitu gabe daudenak.

A.4 FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Kapitulua honetan erregistraturiko obligazioen xehapena kontzeptuen arabera honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2016	2015	% BARIAZ. 16/15
Errentamenduak	471	819	(% 42,5)
Konponketak eta zaintza	5.813	6.291	(% 7,6)
Bulegoko materiala.....	3.309	3.162	% 4,6
Hornidurak	13.777	15.563	(% 11,5)
Komunikazioak.....	1.880	2.012	(% 6,5)
Publizitatea eta propaganda.....	559	525	% 6,4
Garraioa, aseguruak, harreman publikoak, zergak	1.593	1.322	% 20,6
Bilerak eta hitzaldiak.....	4.440	4.823	(% 7,9)
Hainbat gastu	1.925	2.735	(% 29,6)
Kanpoko zerbitzuak:			
Garbiketa	11.673	11.566	% 0,9
Zaintza	3.489	3.488	% 0,0
Azterlanak eta irizpenak	898	1.060	(% 15,2)
Argitalpenak.....	746	817	(% 8,7)
Informatika zerbitzuak.....	2.549	2.487	% 2,5
Beste batzuk.....	4.565	4.879	(% 6,4)
Zerbitzu arrazoiengatik kalte-ordainak	6.247	6.730	(% 7,2)
GASTU ARRUNTEN GUZTIZKO PARTZIALA TITULU PROPIORIK GABE	63.934	68.279	(% 6,4)
Titulu propioak eta kanpoko kontratuak	95	332	(% 71,4)
GUZTIRA	64.029	68.611	(% 6,7)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 INBERTSIO ERREALAK, IBILGETUA ETA ONDARE GARBIA

Inbertsio errealak

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2016	2015	% BARIAZ. 16/15
Eraikinak	3.235	5.411	(% 40,2)
Makineria, instalak. eta tresneria	935	698	% 33,9
Altzariak eta tresnak.....	899	1.401	(% 35,8)
Informazio prozesuetarako ekipoak	2.582	3.132	(% 17,6)
Ekipamendu zientifikoa	4.499	7.500	(% 40,0)
Bibliografi funtsak	4.479	4.594	(% 2,5)
Beste batzuk	67	41	% 65,0
GUZTIRA	16.696	22.777	(% 26,7)

Urte askotarako inbertsio-plana, 2015-2018

Euskal Unibertsitate Sistemarako 2015-2018 Unibertsitate Planak Urte askotarako inbertsio-plana barne hartzen du, xehapen honen arabera:

OBRAK	Euroak milakotan				
	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
Medikuntza eta Odontologia Fakultate berria eta Erizaintzako Unibertsitate Eskolarenak (*)	-	500	1.172	10.000	11.672

(*) Fakultate berriaren kostua 65,3 milioi eurorena izatea aurreikusi da. Proiektuaren erredakzioa Eusko Jaurlaritzak hartuko du bere gain osotasunean, eta eraikuntzaren kostua gehi ordainsariak Eusko Jaurlaritzak % 70 arte ordainduko du.

Lan honek baldintzapeko obra izaera du, izan ere beharrezkoa da EHUK dagozkion izapideak gauzatzea obra egin ahal izateko eta beharrezko finantzaketa osagarria bilatzea, dela beste erakunde publiko edo pribatu batzuen ekarpen bidez, dela bere ondarearekin egin beharreko beste eragiketa batzuen bitartez.

Konpromiso hori zehaztea lortuko ez balu, EHUK planteatu ahal izango du Kontratu-Programen Jarraipen Batzordearen eta Urte askotarako inbertsio-planaren esparruan beste egintza batzuetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak Plan honetako ekitaldietan beharrezko irizten zaien beste egintza batzuetarako egikaritzea. Hala gertatuz gero, aipatutako eraikinaren eraikuntzari lotutako kredituak bertan behera geldituko dira, 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldietara luzatzen direnak, eta kreditu horiek data horietan adostuko den Unibertsitate Plan berrian aztertuko dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ibilgetua

Hona hemen ibilgetuaren banakatzea ekitaldi itxieran:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	SALDO GORDINA 2016.12.31	AMORT. METAT./ NARRIAD./KENTZEA	SALDO GARBIA 2016.12.31
Aplikazio informatikoak	1.370	(1.039)	331
Errentam. edo lagapenean erabilitako aktiboetan inbertsioak.....	6.490	(2.596)	3.894
Beste ibilgetu ukiezin bat	1.891	(1.110)	781
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA	9.751	(4.745)	5.006
Lursailak	412.068	(*) (19.274)	392.794
Eraikuntzak eta azpiegiturak	790.625	(73.981)	716.644
Bestelako ibilgetu materiala	368.100	(259.028)	109.072
Makineria, lanabesak eta bestel. instalazioak	9.875	(8.054)	1.821
Altzariak	48.753	(35.524)	13.229
Informazio prozesuetarako ekipoak	57.582	(52.699)	4.883
Bibliografi funtsak.....	62.639	(40.324)	22.315
Beste batzuk.....	189.251	(122.427)	66.824
Abian dagoen ibilgetua eta aurrerakinak.....	102	-	102
IBILGETU MATERIALA GUZTIRA	1.570.895	(352.283)	1.218.612

(*) EHUK zenbait eraikin eta lursailen erabilera laga die hirugarrenei ordainik jaso gabe; honela, bada, eraikinen kasuan aktiboari baja eman zaio eta kostua narriatu, lursailen kasuan.

Unibertsitatearen Erreformatarako 11/1983 Lege Organikoak, abuztuaren 25ekoak, 53.2 artikuluan ezartzen du unibertsitateek beren gain hartuko dutela unibertsitateen egitekoen eraginpean dauden Estatuko jabetza publikoko ondasunen titulartasuna.

Abenduaren 27ko 489/1994 Dekretu bitartez, EA Eren Administrazioak EHUri atxikitako zenbait ondasun higiezinaren titulartasuna eskualdatu zion.

2007ko ekitaldian, EHUK eskatu zion aditu independente bati bere jabetzako lursail eta eraikin guztien balorazioa egiteko eta erosketa prezioa edo produkzio kostua finkatzeko ezintasunaren aurrean, arrazoizko balioarekin tasatu ziren. Tasazio-balio horren arabera, ibilgetu horiek amortizatu egin dira 2008ko ekitaldiaz geroztik eta gainera, erosketa, besterentze, eskualdaketa eta idazpuru honekin lotutako gainerako bariazioen kontularitzaz kanpoko erregistroa gauzatu da.

EHUK hitzarmen bat izenpetu zuen Teknologia Parkea SArekin 2015eko abenduaren 21ean eta bertan ezartzen zen EHUri dagokiola Leioako Biofisika eraikin osoaren erabilera-eskubidea; eraikin honen eraikuntzan Teknologia Parkea SAK ere parte hartu du eta honenbestez, eraikinaren titulartasunaren zati bat ere berea du. Akordioaren arabera, Teknologia Parkea SAK egindako erabilera-lagapenaren ordainetan, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak Teknologia Parkea SARI emandako maileguaren zenbateko baliokidea ordainduko dio; mailegu hori Biofisikako eraikina eraikitzeke erabili zen. Mailegua 5,7 milioi eurorena da, eraikuntzen balio handiago modura erregistratu dena eta 2016ko abenduaren 31n horietatik 4,5 milioi euro daude ordaintzeko, ibilgetuko hornitzaile modura erregistratuak daudenak (ikus A.11).



Ondare garbia

EHUren ondare garbia osatzen duten kontuen xehapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
	SALDOA 2016.12.31	SALDOA 2015.12.31
Ondarea	1.102.694	1.102.694
Sortutako ondarea	34.619	46.479
Aurreko ekitaldietako ondorioak	46.478	60.971
Ekitaldiaren emaitza	(11.859)	(14.492)
Emaitzetara egozteko dauden ondare-gehituntzak	51.482	50.695
GUZTIRA	1.188.795	1.199.868

Ondarearen kontu-sailaren saldoak, funtsean, EHU eratu zen unean egindako hasierako ondare-ekarpena jasotzen du eta lursail eta eraikin guztien arrazoizko balioa erregistratzearen eragina, aurreko paragrafoan aipatutako balorazioaren arabera.

Aurreko ekitaldietako emaitzek, bestetik, aktibo eta pasibo guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Planera egokitzeko egindako doiketa txertatzen dute.

Emaitzetara egozteko dauden ondare-gehitzeak, era honetara xehatzen dira:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan			
	SALDOA 2016.01.01	GEHITZEAK	EMAITZETARA EGOTZIAK	SALDOA 2016.31.12
Lagatako higiezinaren gaineko erabilera eskubideengatik sarrerak	872	-	(92)	780
Biologia eta Bioteknologia Esperimentalen Plentziako Itsas Estazioa	409	-	(59)	350
Hiru eraikin Sarrikon	463	-	(33)	430
Kapitaleko diru-laguntzak	49.823	1.875	(996)	50.702
Bilboko Enpresa Ikasketen UE	4.484	-	(46)	4.438
Ekipamenduaren dohaintza	701	1.875	(114)	2.462
Ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko diru-laguntzak	44.638	-	(836)	43.802
ONDARE IGOERAK GUZTIRA, EGOTZI GABEAK	50.695	1.875	(1.088)	51.482

EHUri ordainik jaso gabe lagatako higiezinaren erabilera eskubideek eragindako sarreraren saldoari dagokionez, bat dator ibilgetu ukiezinean erregistraturiko eskubide horien balorazioarekin eta emaitzetan egozteko dagozkion aktiboak amortizatzen diren ehuneko berean egiten da.

A.6 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

2016 eta 2015eko ekitaldietan kitatutako sarreraren xehapena honako hau da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2016	2015	% BARIAZ.
Tasa akademikoak, administratiboak eta atxikitako zentroenak	28.147	29.005	(% 3,0)
Beste prezio publiko batzuk	8.173	6.528	% 25,2
PREZIO PUBLIKOAK GUZTIRA	36.320	35.533	% 2,2
Kanpoko kontratuak	5.899	7.023	(% 16,0)
Kanpoko kontratuen atxikipenak	1.017	1.286	(% 20,9)
Egoitzak eta ikastetxe nagusiak	1.289	1.229	% 4,9
Argitalpen zerbitzua	563	767	(% 26,6)
Bestelako sarrerak	2.424	2.965	(% 18,2)
BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	11.192	13.270	(% 15,7)
GUZTIRA	47.512	48.803	(% 2,6)

Prezio publikoak

EHUko goi mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen kontzeptuan ordaindu beharreko prezioak eta horien ordainketa moldea 2016-2017 ikasturterako, baita horiek salbuetsi eta murrizteko onuraren baldintzak zehaztea ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko ekainaren 30eko Agindu bitartez ezarri ziren, ULoren 81.3.b artikulua indarrez. Aipatutako aginduak agintzen du diru-sarrera 2016ko abenduaren 31 baino lehenago egingo dela eta 2011ko ekitalditik aurrera ezarri zen tasak kobratzeko irizpideari eutsiko zaiola (iraila eta abendua).

Bestetik, aurrekontuaren ikuspuntutik, EHUK 2008ko ekitaldian finkatutako kutxa irizpidearen arabera erregistratzen ditu tasek eragindako sarrerak eta aldiz, ondarean, sortzapenaren arabera banatzen dira. Honenbestez, egoeraren balantzean aldizkakotzeagatik doiketen kontu-sail bat dago, 21,7 milioi euroren saldokoa, 2017ko ekitaldiko tasei dagokiena, aldeztatik 2016an kobratutakoak. Berebat, ondarean erregistratu da zorpetutako eta itxieran kobratu gabeko tasen kontzeptuan kobratzeko dagoena, 818.403 euroren zenbatekoan, 2016ko ekitaldian aurrekontuko islarik ez dutenak (ikus A.10).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kanpoko kontratuak

Kontzeptu honek jasotzen ditu hirugarrenek EHUri agindutako lanak, azterlanak edo proiektuak egiteagatik aitortutako eskubideak; fiskalizazio-gai izan den ekitaldian finantzaketa publikoa % 61 izan da.

ERAKUNDEA	Euroak milakotan		
	2016	2015	% BARIAZ.16/15
EAEren Administrazio Orokorra.....	563	493	% 14,2
Erakunde pribatuak.....	2.308	2.424	(% 4,8)
Foru aldundiak.....	244	1.296	(% 81,2)
Euskoiker Fundazioa.....	817	1.100	(% 25,8)
Estatuko Administrazioa.....	201	142	% 41,7
Fundazioak.....	655	510	% 28,4
Toki administrazioak.....	793	814	(% 2,5)
Beste administrazio publiko batzuk.....	145	176	(% 17,2)
Unibertsitateak.....	173	68	% 154,1
GUZTIRA	5.899	7.023	(% 16,0)

EHUren Gobernu Kontseiluak 2007ko abenduaren 20an onartu zuen era honetako kontratuak arautzen dituen araudia: izaera zientifiko, tekniko, humanistiko edo artistikoa duten lanak eta espezializazioko irakaskuntzen garapena edo prestakuntzako jarduera bereziak pertsona fisiko edo juridiko, unibertsitate edo erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan egitekoak. Araudi horren 27. artikulua agintzen du kontratuaren guztizko zenbatekotik, BEZa eta ibilgetu inbentariagarria kanpoan utzita, % 15eko gutxieneko atxikipena egingo dela, zeharkako kostuen kontzeptuan, helburu hauetarako:

- % 5, kontratua lotzen zaion zentro, saila, institutu propio edo antzekoarentzat.
- Gainerako % 10a erabiliko da unibertsitateko jardueratik eratorritako emaitzak sustatu eta hobetzeko gastu gehigarriak ordaindu eta EHuko gastu orokorreari aurre egiteko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 JASOTAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITALEZKOAK

Transferentzia arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako sarrerak ondoko taulan adierazitako moduan xehatzen dira:

KONTZEPTUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	
	2016	2015	2016	2015
Estatuko transferentziak.....	20.358	17.772	-	(200)
EAEren Administrazio Orokorra:				
Diru-laguntza orokorra	254.807	251.874	4.500	4.000
Irakasleen osagarriak (ikus A.3).....	16.017	14.944	-	-
Kontratu programak.....	30.372	30.516	-	-
Bestelako diru-laguntzak.....	32.796	27.529	-	-
Arabako Foru Aldundia	74	97	70	
Gipuzkoako Foru Aldundia	571	668	-	-
Bizkaiko Foru Aldundia	767	1.303	279	103
Udal erakundeak.....	159	109	-	-
Beste erakunde publiko batzuenak.....	793	669	-	-
Enpresa pribatuei diru-laguntzak.....	2.855	2.328	327	-
Familia, irabazi asmorik gabeko erakundeak.....	32	-	-	-
Europar Batasunarenak	7.611	6.715	516	-
Europako araubideko beste erakunde publiko batzuenak	67	545	-	-
GUZTIRA	367.279	355.069	5.692	3.903

Kontratu-programak

EUSLk 89. artikuluan agintzen du unibertsitate gaietan eskumena duen sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, kontratu-programak izenpetu ahal izango dituela unibertsitateekin, izaera administratiboa eta diru-laguntzarena izango dutenak; zehazten du, gainera, 92. artikuluan kontratu horiek finantzaketa baldintzatu direla, zenbait jarduera helburudunen arabera definituak eta adierazle bidez emaitza zenbakarrikoak.

2014ko abenduaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak 2015-2018 Unibertsitate Plana onartu zuen Euskal Unibertsitate Sistemarentzat. Aipatutako Planean eta jada adierazitako EUSLren 89. eta 92. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, 2015eko uztailaren 28an hiru kontratu-programa izenpetu ziren guztira, 127,2 milioi euro egin zutenak; honako taula honetan laburtuko ditugu hasierako aurreikuspenei eta 2016ko ekitaldi itxierako egikaritzari dagozkion datuak:



KONTRATU-PROGRAMAK	HASIERAKO AURREIKUSPENAK					EGIKARITZEA	
	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA	2015	2016
Prestakuntza	9.686	9.585	9.687	9.809	38.767	9.319	9.258
Ikerketa eta Transferentzia	18.923	18.352	18.691	19.617	75.583	16.676	17.351
Erantzukizun soziala	2.973	3.104	3.284	3.533	12.894	2.860	2.972
PROGRAMEN GASTUAK GUZTIRA	31.582	31.041	31.662	32.959	127.244	28.855	29.581
SARRERAK GUZTIRA						30.852	30.517

2016ko ekitaldi itxiera arte kontabilizatutako sarrera eta gastuen arteko aldea, 2,9 milioi euro, berariazko geldikinaren zati da 2016ko abenduaren 31n.

A.8 INBERTSIO FINANTZARIO IRAGANKORRAK

Hona hemen dagozkion idazpuren xehapena, balantzeko aktiboan duten izaeraren arabera sailkatuak, epe labur edo motzekoak diren:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan		
	FINAN. INBER. EPE MOTZERA	FINAN. INBER. EPE LUZERA	GUZTIRA
Finantza inbertsioak ondarean	-	3.248	3.248
Langileei maileguak (ikus A.10)	769	794	1.563
GUZTIRA	769	4.042	4.811

Epe luzeko finantza inbertsioei dagozkien saldoen xehapena honako hau da:

ERAKUNDEA	Euroak milakotan			
	KONTULARITZAKO		BALIO	%
	BALIOA	ZUZKIDURA	GARBIA	PARTAID.
Bizkaiko Teknologia Parkea, SA	4.880	(1.794)	3.086	% 2,6
3 Fundazioak	90	-	90	%15
Beste partaidetza batzuk	74	(2)	72	
FINANTZA INBERTSIOAK ONDAREAN	5.044	(1.796)	3.248	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 ZORRA

Hona hemen zorraren bilakaera 2016ko ekitaldian:

Euroak milakotan

ENTITATEA	SALDOA			SALDOA		
	15.12.31	AMORTIZAZIOA	BERRIAK	16.12.31	% INTERESA	IRAUNGIPEN DATA
EAE: Defizitari aurre egiteko mailegua	5.923	1.184	-	4.739	Euriborra	2020
EAE: "Euskampus" mailegua	3.525	331	-	3.194	% 1,41	(*) 2025
MICINN: Itzuli beharreko aurrerakinak	721	108	-	613	-	2021
MICINN: Innocampus programa.....	10.386	985	-	9.401	% 1,17	(*) 2025
ZORPETZEA	20.555	2.608	-	17.947		
Epe laburreko iraungipena duten saldoak (ikus A.11)	2.608			2.624		
Epe luzeko iraungipena duten saldoak (ikus A.11)	17.947			15.323		

(*) 3 urteko gabezialdia

A.10 ZORDUNAK

Aurrekontuko zordunak

Aurrekontuko zordunen osaera antzintasun eta kontzeptuen arabera honako hau da:

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	AURREK.		
	ITXIAK	2016	GUZTIRA
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	1.205	2.766	3.971
Kanpoko kontratuak.....	1.140	2.113	3.253
Bestelako tasak eta sarrerak.....	65	653	718
DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK	20.931	63.707	84.638
Estatua	10.641	7.205	17.847
EAE: Irakasleen osagarriak	-	3.770	3.770
EAE: Kontratu-programak.....	1.640	30.517	32.156
EAE: Beste batzuk.....	2.975	16.487	19.462
Europako Erkidegoa	4.285	4.322	8.607
Foru aldundiak eta udal erakundeak	587	471	1.058
Enpresa pribatuenak.....	660	911	1.571
Beste diru-laguntza arrunt batzuk.....	143	24	167
ONDARE SARRERAK	27	127	154
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	609	305	914
EB: FEDER.....	609	103	712
Beste batzuk.....	-	202	202
ZORDUNAK GUZTIRA	22.772	66.905	89.677
Kaudimengabez. zuzkid.....			(5.041)
KUDEAKETA ERAGIKETENGATIKO ZORDUNAK			84.636



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrekontuz kanpoko zordunak

Aurrekontuz kanpoko zor saldoek honako bilakaera hau izan dute ekitaldian zehar:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	SALDOA 2015.12. 31	EKITALDIKO BARIAZIOA	SALDOA 2016.12. 31
Ekaineko aparteko soldataren aurrerakina.....	5.798	(2.110)	3.688
Langileei emandako beste aurrerakin batzuk.....	917	(98)	819
Foru Ogasun zorduna BEZagatik	7.445	(4)	7.441
Bestelako zordunak.....	1.011	311	1.322
Ekitaldiko tasengatiko sarrerak N+1 (ikus A.6).....	1.178	(360)	818
ZORD. ETA KOBR. B. KONTU BATZ. GUZT. PARTZIALA (balantz. arab.)	16.349	(2.261)	14.088
Langileei emandako maileguak (ikus A.8).....	1.667	(104)	1.563
Kutxa finkoko funtsen zuzkidura.....	795	7	802
Zor saldoak, balantzean kontu hartzekodunetatik garbi (ikus A.11).....	326	(98)	228
Ekitaldiko tasengatiko sarrerak N+1 (ikus A.6).....	(1.178)	360	(818)
AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK GUZTIRA	17.959	(2.096)	15.863

“Ekaineko aparteko soldataren aurrerakina” idazpuruaren saldoek langileei aurreratutako kopuruak erregistratzen dituzte, ekitaldi bakoitzean hurrengo urteko ekaineko aparteko soldata alde zuzenetik abenduan jasotzeko aukera baliatu zutenena, 2012ko ekitaldian aparteko soldata kendu izanaren ondorioak berdintzeko.

BEZagatik zor saldoa 2015 eta 2016ko ekitaldietako likidazioei dagokie, 2017 eta 2018an kobratu direnak.

A.11 HARTZEKODUNAK

Hartzekodunen xehapena ekitaldi itxieran honako hau da:

	Euroak milakotan			
	ZUZKID. ETA BESTE EPE LUZERA	ZORRAK EPE LABURRERA	HARTZEKOD. ETA ORDAINTZ. B.KNT.B.	GUZTIRA 2016.12.31
Aurrekontuko hartzekodunak	-	1.622	6.272	7.894
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	813	695	22.332	23.840
Epe laburreko zorrak, diru-laguntza bihur daitezkeenak	-	77.333	-	77.333
Zorpetze saldoa (ikus A.9).....	15.323	2.624	-	17.947
Ibilgetuaren hornitzaileak.....	4.003	458	-	4.461
HARTZEKODUNAK GUZTIRA BALANTZEAREN ARABERA	20.139	82.732	28.604	131.475
Epe luzeko hornidurak				813
Epe luzeko zorrak				19.326
Epe laburreko zorrak				82.732
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.				28.604
EPE LUZEA ETA LABURRA GUZTIRA				131.475



“Epe laburreko zorrak, diru-laguntza bihur daitezkeenak” idazpurua, 77,3 milioi euroren zenbatekoduna, ekitaldi itxieran diruzaintza geldikin berariazkoari dagokio, hau da, gauzatzeko dauden gastu edo inbertsioei, baina zeinentzat dagokion finantzaketa jada jasoa den.

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen saldoek honako bilakaera hau izan dute ekitaldian zehar:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	SALDOA 2015.12.31	EKITALDIKO BARIAZIOA	SALDOA 2016.12.31
Ogasun Publiko hartzekoduna, Perts. Fisik. Errent. gaineko Zerga kontzeptuan .	7.036	(545)	6.491
Gizarte Segurantza hartzekoduna	13.424	255	13.679
2012ko abenduko aparteko paga	(7)	-	(7)
Eskubide pasiboak eta MUFACE.....	571	(205)	366
Aplikatzen dauden sarrerak	1.687	(526)	1.161
Foru Ogasun hartzekoduna jasandako BEZ kontzeptuan	702	(338)	364
Langileen kalteordain eta auzietarako zuzkidurak	767	46	813
Epe laburrera jasotako bermeak eta gordailuak.....	362	290	652
Bestelako hartzekodunak	754	(248)	506
AURREK. KANPOKO HARTZEK. SALDOAK (balantzearen arab.)	25.296	(1.271)	(*)24.025
Langileentzako mailegu funtsa.....	3.181	(3.181)	-
AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK GUZTIRA	28.477	(4.452)	24.025

(*) Kopuru honetatik 228 mila euro murriztu behar dira (ikus A.10) eta gehitu 43 mila euro, epe laburreko zorren idazpuruan kontabilizatutakoak, interesak aldizkakotzeagatik, aurrekontuz kanpoko hartzekodun modura ageri ez direnak. Emaita 23.840 mila euro da.

A.12 DIRUZAINNTZA ETA ONDARE SARRERAK

EHUren diruzaintza ekitaldi itxieran modu honetara xehatzen da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan
	SALDOA 2016.12.31
Kutxa eta banku-kontuak.....	12.603
Kutxa finkoko funtsen zuzkidurak	807
GUZTIRA	13.410

2016ko abenduaren 31n 251 banku-kontu zeuden irekita.

Hona hemen 2016 eta 2015eko ekitaldietan erregistraturiko ondare-sarrerren xehapena:

	Euroak milakotan	
DIRU-SARRERA	2016	2015
Banku-kontuen interesak	-	9
Eraikinen alokairua	393	373
Emakiden eta aprobetxamendu berezien produktuak.....	482	459
Salmentak (rappelak erosketen gainean)	18	15
GUZTIRA	893	856

A.13 AURREKONTU ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Kontabilitate orokor publikotik eskuratutako ekitaldiko kontularitzako emaitzaren eta aurrekontuko emaitzaren arteko kontziliazioa ondoko taulan jaso dugu:

	Euroak milakotan
AURREKONTUAREN EMAITZA	8.628
ONDARE-BALIOKIDETZARIK GABEKO AURREKONTUKO ERAGIKETAK	
Inbertsio errealak, besterentzeetatik garbi	15.318
Finantza-pasiboen bariazioa	3.060
AURREKONTUKO BALIOKIDETZARIK GABEKO ONDAREKO ERAGIKETAK	
Amortizazioak	(31.557)
Izakinen bariazioa	(100)
Kaudimengab. zuzkid. bariaz.	1.579
Inbentarioko bajengatiko galerak	(46)
Ibilgetu finantzarioaren narriadura	(68)
Tasa akademikoen aldizkakotzea	1.853
Finantza gastuen aldizkakotzea	10
Kapital diru-laguntzak, emaitzetara egozteko zain.....	(1.876)
Diru-laguntzen egozketa	1.088
Gizarte funtsaren doiketa	(3.181)
DOIKETAK ETA ERREGULARIZAZIOAK	
Egikaritutako berariazko geldikina:.....	(6.567)
EKITALDIKO EMAITZA	(11.859)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOAREN ANALISIA

A.14.1 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

Administrazioko kontratazioaren araudia bete dela egiaztatu dugu 18 espedienteren lagina aztertuta, 2016ko ekitaldian esleitutakoak:

2016-AN FISKALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

XEDEA	ZENBATEKOA		ESLEIP.		AKATSAK
	ESLEIP.	EGIK. 2016	DATA	PROZED.	
OBRAK:					
1. Zoladura lanak, Bilboko San Mamesko Ekipamendu Alorreko Egikaritza Unitateko B eta C letrekin bereizitako zuzkidura-lursailena	465	505	(uzt-16)	PPN	
2. 4 enpresarekin izenpetutako Esparru-akordioa, EHuko ahots/datuen komunikazioetarako telekomunikazio eta elektrizitateko harien azpiegiturak hornitu, instalatu eta mantentzeko (3 urte)	(*600	18	(aza-16)	PPN	A2,3,4, B1
HORNIGAIAK:					
3. Goi erresoluzioko likidoen kromatografo bat eta masen espektrometro bat hornitzea	483	483	(mai-16)	Irekia	
4. Masen espektrometro bat hornitzea analisi proteomikoetarako	923	-	(aza-16)	Irekia	A1,4
5. RMN espektrometroaren gaurkotzea hornitzea	588	-	(urr-16)	Irekia	A1,4
6. Gai eta zerbitzu elektronikoetarako irispidea Wiley Subscription Services, Inc. ("Wiley") lerroko liburutegiaren bitartez (1+1 urte)	438	438	(api-16)	PGPN	C
7. Springer argitaletxearen aldizkako argitalpen elektronikoetarako harpidetza /16.12.31ra arte + urtebete)	346	346	(uzt-16)	PGPN	A5, C
Luzapena 17.12.31ra arte.....	353		(abe16)		
8. Elsevier argitaletxearen Science Direct-en aldizkako argitalpen elektronikoaren kontratazioa (1+2 urte)	1.488	1.524	(eka-16)	PGPN	C
9. Bioplotter 3D-ren hornidura.....	121	121	(mar-16)	PGPN	
10. EHuko laborategietako baten alokairu-erregimena hornitzea, eragile biologiko, genetikoki aldatutako organismo,kimiko eta/edo minbizi eragileen eraginpean daudenak (2+1 urte)	(*120	45	(mai-16)	PGPN	A1,3
11. Enpresa batekin izenpetutako esparru-akordioa, EHUren zentro eta bulegotan komoneko papera, esku-lehorgailuak, paperezko eskuoihalak eta eskuak garbitzeko gela hornitzeko (2+1 urte)	(*290	91	(mar-16)	Irekia	A1
12. Campus Microsoft lizentzien hornidura, CRUErekin izenpetutako erabakien esparruan (3+3 urte)	(*490	140	mai-16	Irekia	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2016-AN FISKALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

XEDEA	ZENBATEKOA		ESLEIP.		AKATSAK
	ESLEIP.	EGIK. 2016	DATA	PROZED.	
ZERBITZUAK:					
13. Instalazio termikoen mantentze zerbitzua					
EHUko Gipuzkoako Campuseko eraikinetan (1+1 urte)	77	88	(abe-15)	Irekia	A1,2,3
17.01.01etik 17.12.31ra arteko luzapena	77		ira-16		
14. EHUren EMC erakundeko backup softwarearen hardwarea, softwarea eta lizentziak eta EMC erakundeko backup mantendu eta egunean jartzea (3+2 urte)	543	270	ots-16	PGPN	C
15. Erabiltzaileei Arreta emateko Zentroaren lehen mailako arreta zerbitzuak (EAZ/CAU) (3+3 urte)	(*1.157	212	mai-16	Irekia	A1,2,3
16. Kudeaketa akademikoaren (GAUR) eta espedienteen kudeatzailearen (TRAINERA) sistemako modulu multzoaren mantentze-zerb. zuzentzaile, ebolutibo eta egokitzailea ...	(*218	97	mar-16	PGPN	
17. Kudeaketa akademikoaren (GAUR), espedienteen kudeatzailearen (TRAINERA) eta ikerketa (IKERTU) sistemako modulu multzoaren mantentze-zerb. zuzentzaile, ebolutibo eta egokitzailea (2+2 urte)	(*1.513	334	mai-16	Irekia	A1 C
18. Esparru-akordioa enpresa batekin Campusen arabera EHUko zentro, zerbitzu eta sailatarako autobus-garraioaren zerbitzua emateko (2+2 urte)	(*470	69	urr-16	Irekia	A1
GUZTIRA	10.760	4.781			

Zenbatekoak BEZa barne

(*) Aleko prezioak: esleipen zenbatekoan pleguen arabera kontratuaren aurrekontua zein den adierazi dugu, BEZa barne.



Gainera, lehenagoko ekitaldietan fiskalizazio-gai izan ziren 11 espedienteren gaineko jarraipena egin dugu, 2016ko ekitaldian egikaritzen jarraitzen zutenak:

XEDEA	Euroak milakotan				AKATSAK
	URTEA	ESLEIPENA ZENBATEKOA	EGIKARITZEA 2016 31.12.2016		
HORNIGAIAK:					
19. Teknologia berrikuntzarako hasi eta buka proiektua Biltegiatze azpiegitura korporatiboa (5 urte)	2014	887	89	266	
20. Informatikako ekipamend. esparru-akordioa (3+1 urte)	2013	(*6.669	1.940	7.907	B1
1. luzapena: 16-03-25etik 17-03-24ra arte	mar-16	(*2.223			
21. Laborategiko altzariak eta instal. (Bizkaiko Campusa) (1+2 urte)	2013	(*600	172	4.992	B1,2
1. luzapena: 14-08-15etik 15-08-14ra arte	2014	(*600			
2. luzapena: 15-08-15etik 16-08-14ra arte	2015	(*600			
22. Esparru-akordioa, Siemens telefonoak hornitzeko telefono bidezko komunikazio sarerako (2+1 urte).....	2014	(*800	383	616	
1. luzapena: 16-03-18tik 17-03-17ra arte	ots-16	(*400			
23. EHUKo zentroetan gas naturala (1+2 urte).....	2014	(*2.052	1.958	5.227	
1. luzapena: 15-04-08tik 16-04-07ra arte	2014	(*2.052			
2. luzapena: 16-04-08etik 17-04-07ra arte	mar-16	(*2.052			
24. Laborategiko gasa hornitzeko esparru-akordioa (4 urte)	2015	(*1.428	625	1.300	B1,2
25. Esparru-akordioa enpresaburu bakarrarekin, segurtasun ekipam. inst. eta mantentze-lanen hornidura (2+2 urte).....	2015	(*640	200	200	
26. Esparru-akordioa, EHUri Apple markako informatika produktuak hornitzeko (3+1 urte)	2015	(*817	225	462	B1
ZERBITZUAK:					
27. Eraikuntza eta instalakuntzen garbiketa (2+2 urte).....	2014	22.096	11.196	22.753	
1. luzapena: 16-12-15etik 17-12-14ra arte	eka-16	11.048			
aldaketa	ots-16	528			
2. aldaketa	ira-16	79			
28. Komunikazioen erakunde-sarea (3+3 urte).....	2014	3.524	1.334	3.291	
1. luzapena: 17-01-01etik 17-12-31ra arte	aza-16	1.334			
29. Argitalpen zerbitzuko argitalpenak egiteko esparru-akordioa (2+2 urte)	2015	(*1.032	404	838	B1
GUZTIRA		61.461	18.526	47.852	

(*) Aleko prezioak esleipen zenbatekoan pleguen arabera kontratuaren aurrekontua zein den adierazi dugu, BEZa barne.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		Euroak milakotan	
		ESLEIPEN	
AKATSAK		ESPEDIENTE KOP.	ZENBAT.
ESPEDIENTEAK			
A1	Prezioaren irizpidea puntuatzeko baliatzen den formulak prezio baxuenarekiko proportzioa du abiaburu (SPKLTBren 150. art.).....	8	5.215
A2	Ez da behar bezala justifikatzen erabilitako prozedura.....	3	2.625
A3	Ez du betetzen aurreikusitako aldaketetarako bereizten diren mugak eta baldintzak modu argi, zehatz eta nabarian zehazteko eskakizuna (SPKLTBren 106. artikulua)	3	1.911
A4	Balio zenbatetsiaren kalkulua ez da zuzena edo ez dago justifikatua (SPKLTBren 88. artikulua)	4	2.031
A5	Esleipen irizpideen garapena ez da behar hainbatekoa ez Karatulan, ez Pleguetan ere (SPKLTBren 150. art.).....	3	2.111
A6	Pleguetan aurreikusitako prezioen berrikusketak ez du 2014ko EALoren 88. XG betetzen, ez baitaio kostuei lotzen	1	699
EGIKARITZEA			
B1	Ez dago Harrera-aktarik (SPKLTBren 222. artikulua) (***)	6	8.204
B2	Fakturaturako zenbatekoak gainditu egiten du gehienezko aurrekontua edo esleitutako zenbatekoa (SPKLTBren 107. art.) (**).	2	386
BERARIAZKOAK			
C	Irizpenetan aipatutako berariazko akatsak	2	2.056

(**) Akats honen zenbatekoa da 24 zenbakiko espedientean egikaritutako gehiegizkoa eta 21 zenbakiko espedientean kontratuz kanpo egikaritutako zenbatekoa.

(***) Akats honen zenbatekoa da 2016an egikaritutako zenbatekoa, 20 zenbakiko espedientean izan ezik, non egikaritza epea amaitzean (16-08-14) guztira egikaritutako zenbatekoa den, 5 milioi euro.



A.14.2 BESTELAKO GASTUAK

Kontratu txikiaren figura bidez gauzatutako kontratazioak aztertzean ikusi da ekitaldian zehar egindako erosketa batzuetan, urteko bolumena aintzat hartuta, kontratazio prozedura berrikusi behar litzatekeela.

Hona hemen aitortutako obligazioak:

Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	ANT.UNIT.KOP.	HIRUG. KOP.	FAKTURA KOP.	ZENBATEKOA
URTEAN DUTEN GASTU BOLUMENAGATIK BERRIKUSI BEHAR LIRATEKEEN				
KONTRATUEN KONTRATAZIO PROZEDURAK				
Laborategiko materiala	538	5	2.718	925
Klimatizazio sistemen mantentze- eta konponketa-lanak	7	2	145	375
Bulegoko materiala	242	2	1.975	283
Kopiagintza lanak	252	3	1.008	273
Erakunde materialaren horn., serigrafiatutako produk., etab.....	189	1	598	260
Liburu elektronikoen hornidura	1	1	1	85
Itzulpen lanak	8	1	20	45
GUZTIRA	1.237	15	6.465	2.246

Bestetik, 2. eta 6. kapituluetan aitortutako obligazioen analisisian honako akats hauek azaleratu dira:

- 2016an fakturatutako zenbatekoak ekitaldi horretarako esleitutako zenbatekoa gainditzen du:

Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	ESLEITUA	FAKTURATUA	GEHIEG.
Ikerketa eta irakaskuntzako ekipamendua hornitzeko enpresak hautatzeko esparru-akordioa	343	924	581
Bizkaiko Campuseko zentro eta geletarako bulegoko materiala hornitzea, 2. sorta eta liburutegi zerbitzua Gizarte Gaien eraikinean	334	452	118
3 enpresarekin izenpetutako Marko-akordioa, Bizkaiko Campuseko zentroetarako ikus-entzunezko ekipamendua hornitu eta instalatzeko ..	85	162	77
Gipuzkoako Campuseko zentroetarako ikus-entzunezko ekipamendua hornitzen duten enpresak homologatzeko esparru-akordioa	40	111	71
Esparru-akordioa, EHUKo eraikinetarako sarraila elektronikoak hornitu eta instalatzeko	150	182	32
GUZTIRA	952	1.831	879



- 2016an ondotik zehaztutako zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuak luzatu eta/edo egikaritu dira, zerbitzu horretara emandako ondasunak baliatuta, denbora jakin baterako eman gabe (SPKLTBren 23. eta 278. artikulua eta EALren 72. artikulua eta APALren 93. artikulua):

XEDEA	URTEA ESLEIPENA
Kafetegi eta jatetxe zerbitzua Bilboko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean	1996
Kafetegi-jangela zerbitzua Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean	1999 (*)
Arabako Campuserako bulegoko materiala.....	1999
Kafetegi zerbitzua Gasteizko Magisteritzako Unibertsitate Eskolan.....	2000 (*)
Kopiagintza EHU – Industria Ingeniarien Goi Eskola Teknikoko zentroetan Bilbo	2000
Kopiagintza zerbitzua Gasteizko Letren Fakultatean.....	2004 (*)
Arabako Campuserako kopiagintza zerbitzua	2005 (*)
Ordezkaritza objektu eta kirol-arropa dendaren kudeaketa osoa.....	2006
Kafetegi zerbitzua Arabako Campuseko Farmazia Fakultatean	2006
Kafetegi zerbitzua Gipuzkoako Campuseko Kimika Fakultatean.....	2007 (*)
Kopiagintza zerbitzua Gipuzkoako Campuseko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan.....	2010 (*)
Kafetegi-jangela zerbitzua Gipuzkoako Campuseko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan.....	2013
Jangela-kafetegi zerbitzua Arabako Campuseko “Pabiloi” izeneko eraikinean.....	2013 (*)
Jangela-kafetegi zerbitzua Donostiako Irakasle-Eskolan.....	2013 (*)

(*) 2016an onartutako luzapena

Bestalde, EHUK lankidetzaz hitzarmenak ditu izenpetuak, baldintza-agirietan jasotakoaren arabera, urteko aldietarako isilbidez luzatuko direnak. Epaitegi honek gomendatzen du hitzarmenetan iraupen aldi jakin bat zehaztea eta luzaketak berariazkoak izatea.



A.15 FUNDAZIOAK

Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa Fundazioa

EHUko errektoreak 1994ko ekainaren 28an Fundazioa eratu zuen, EHUren 1993ko maiatzaren 11ko Gobernu Batzordearen erabakia betez.

Fundazioaren helburua Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa gaitu, eutsi eta garatzea da.

Hasierako zuzkidura EHUK emandako 3.000 eurok osatzen dute; baita, Medikuntza eta Zientzien Historiaren Museoaren funtsak osatzen zituzten ondasunek ere, Fundazioari ekarri zaizkionak inbentarioan jaso ostean. Ondasun hauek 1998an 595.100 euroren balioa zuten.

Fundazioaren Errektoretza Kontseilua 11 kidek osatzen dute: EHUko 6k; Bizkaiko Kulturako foru diputatuak; Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiako lehendakariak; Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Bizkaiko lehendakariak; Euskal Ikasketen zuzendariak; eta museoko dohaintza-emaileen ordezkari batek.

EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa

Fundazioa 1993ko otsailaren 22an sortu zen, EHUK 30.050,61 euroren ekarpena eginez. Fundazio mistoa da, helbidea Donostiako Miramar Jauregian duena eta helburua irakaskuntza eta unibertsitate izaerako jarduerak antolatzea duena, nagusiki udakoak. Patronatuko kide guztiak EHUkoak dira.

Legeria

- 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzkoa eta 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa (2016ko ekainaren 14az geroztik indarrean).
- 100/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena.
- 101/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaietan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAeko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargaria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 2013ko martxoaren 26ko Ebazpena, Kontuen Kontabilitate eta Auditoria Institutuarena, Irabazi Asmorik Gabeko erakunde txiki eta ertainen Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena.
- 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.
- 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena.
- 2/2015 Legegintzako Errege-Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onesten duena.
- 38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa; Diru Laguntzen Lege Orokorra.

A.15.1 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen 2016ko ekitaldi itxieran Langile-gastuen eta plantillaren xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

ENTITATEA	Euroak		Plantilla			
	LANGILE-GASTUAK		LANG. 2012.31-N		GOI KARGUD. 2012.31-N	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015
Medikuntzaren Museoa Fundazioa.....	22.149	22.149	1	1	-	-
EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa.....	412.168	332.608	(*)10	(*)10	1	1
GUZTIRA	434.317	354.757	11	11	1	1

(*) 5 aldizkako langile finko barne hartzen ditu.

A.15.2 KONTRATAZIOA

Hona hemen Fundazioek publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe egindako kontratuak.

ENTITATEA	XEDEA	Euroak milakotan (BEZa barne)	
		ZENBATEKOA	
EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa	Bidai agentzia.....		114.668
	Catering-a.....		111.760
	Kudeaketa plataformaren garapena		79.390
	Irudi korporatiboa eta 2016ko kanpaina.....		61.130
GUZTIRA			366.948



- 1,5 milioi euroan esleitutako zerbitzu-espedita batean (17. espedita), zerbitzua eman aurreko fase batean lanaren plangintza eta antolamendua balioztatzen duen esleipen irizpidea zehazteak aurreko esleipendunaren ezagutzaren balorazioa eragin du, izan ere, gogoan hartu da kasu horretan ez dela beharrezkoa EHUKo teknikarien esku-hartzea alde aurreko fase horretan.



UPV/EHU-REN ALEGAZIOAK 2016 EKITALDIKO FISKALIZAZIO EMAITZEI

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/88 Legean adierazitakoari jarraikiz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak dokumentu honetan jaso diren alegazioak egin nahi ditu.

Unibertsitatearen antolakuntza egituran, Ikastegiak, Sailak eta Zerbitzuak kudeatzaile ekonomikoak dira, baita ikerketa proiektuez eta kontratuez arduratzen diren pertsonak ere. Hori horrela, egitura horren ezaugarri nagusia da sistema oso deszentralizatu bat edukitzea, aukera ematen diena kudeatzaileei, ikertzaileei eta proiektu sustatzaileei tresna arin eta eraginkorrak erabiltzeko, horrek zaildu egiten badu ere kontrola, eta horretan egiten ari da, hain zuzen ere, prozesuak normalizatzeko eta homogeneizatzeko ahaleginik handiena. Alde horretatik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin elkarlanean aritzeak aukera eman du pixkanaka hobetzeko administrazio eta kontabilitateko prozesuak.

Hona hemen egin diren alegazioak, txostenaren ordenari jarraikiz:

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Langileak

1. EHUk 2016ko ekitaldian 672.888 euro ordaindu ditu osagarrien eta ordainsarien parekatze kontzeptuan, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan aurreikusitako gabe daudenak (ikus A.3).

ALEGAZIOAK

Osagarri horiek ez daude jasota Unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko Errege Dekretuan (abuztuko 1086/1989); hala ere, osagarriak ordaindu egin dira Gobernu Batzarrak eta kasu batzuetan Gizarte Kontseiluak onetsi dituztelako, unean-unean irakasle eta ikertzaileen eskakizunei erantzuteko.

2. 2016ko abenduaren 31n aldi baterako lan kontratua zuten Irakasle eta Ikertzaileek irakasle-plantillaren % 40ko muga gainditzen zuten, ULoren 48.5 artikuluan finkatutakoa, ULALOk ematen dion idazkeran.

ALEGAZIOAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitakoa egia da zenbaki global edo absolutuei dagokienez. Hala ere, ezin dira zenbaki horiek interpretatu honako kontu hauek aintzat hartu gabe:

Unibertsitatei buruzko Lege Organikoak (abenduaren 21eko 6/2001) honako hau ezartzen du 48. artikuluko 4. eta 5. ataletan:



4. Ekibalentzien arabera arduraldi osorako kontratatutako irakasle eta ikertzaileen kopuruak ezingo du gainditu unibertsitateko irakasle eta ikertzaile guztien ehuneko 49a. Ez dira irakasle kontratatu gisa zenbatuko titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasgairik irakasten ez duten irakasleak, ez eta unibertsitateari loturiko ikerketa-institutuetako berezko langileak eta doktorego eskolei loturiko langileak ere.

5. Aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikertzaileek ezin izango dute irakasleen plantillaren ehuneko 40a gainditu.

Halaber, Eusko Unibertsitate Sistemari buruzko Legeak (otsailaren 25eko 3/2004), 15. artikuluan, garatu egiten du esan berri den hori. Hau dio:

“Irakasle eta ikertzaile kontratatuen ehunekoa.

1. Oinarrizko legedian ezarritakoaren ondorioetarako, hauek izango dira unibertsitateko funtzionarioen kidegoetako langileen arteko eta irakasle eta ikertzaile kontratatuen arteko ehunekoa zehazteko irizpideak:

a) Unibertsitate osoa kontuan hartuta kalkulatu da. Horretarako, unibertsitateko plantilla osoa hartuko da, onartutako lanpostuen zerrenden arabera, lanpostu hutsak barne direla, erregelamenduz ezarritako salbuespenak salbuespen.

b) Zenbaketa egiteko, denbora osoa izango da neurria, eta denbora-zati batez diharduten irakasleen eragina haztatu egingo da.

c) Ez dira kontratatutako irakasle moduan zenbatuko titulu ofizialak lortzeko bideratutako irakaskuntza ofizialak irakasten ez dituztenak. Ez dira zenbatuko ehuneko horretan Unibertsitateari buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 12. xedapen gehigarrian aipatzen diren unibertsitateari atxikitako ikerketa-institutuetako langileak ere, ez ikertzaile lotetsiak, ez irakasle elkartuak”.

Bestalde, Osasunari buruzko Lege Orokorrak (apirilaren 25eko 14/1986) hau ezartzen du 105. artikuluko 2. atalean:

“2. Hitzarmenetan, halaber, hitzarmendun osasun-erakundean zerbitzuak ematen ari diren langile laguntzaileek bete beharko dituzten irakasle lotetsien plaza kopurua ere zehaztu ahal izango da. Kopuru hori ez da kontuan hartuko unibertsitate publikoetan aplikagarria den kontratudunen ehunekoaren ondorioetarako”

Horixe bera aurreikusten da Unibertsitateen Legearen (abenduaren 21eko 6/2001) hamargarren xedapen gehigarrian eta EHU eta Osakidetzaren arteko osasun-hitzarmenaren seigarren klausulan (2009ko urtarrilaren 9ko EHAA).

Hau da, indarrean dauden legeek gutxi esaten dute edo ez dute ezer esaten aldi baterako kontratu batekin edo kontratu iraunkor batekin zerbitzuak ematen dituzten langileak kontratatuzeko moduari buruz; hala ere, ez da zentzugabea pentsatzea kasu horretan hitzez hitz emandako araudian ezartzen diren irizpide berberak aplikatu behar direla langile kontratudunen ehunekoa kalkulatzeko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Administrazioko Kontratazioa

1,8 eta 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bi espedientetan (21 eta 24 zk.), fakturatutako zenbatekoak gainditu egin du urteko gehieneko aurrekontua 118.215 eta 267.585 euroan, hurrenez hurren, eta lizitazioaren eta esleipenaren oinarritzko baldintzak eraldatu dira (SPKLTBren 107. artikulua) (ikus A.14.1).

ALEGAZIOAK

Aldez aurretik esan beharra dago HKEEK SPKLTBren 107. artikuluari buruz egiten duen aipamenak lizitazioa zuzentzen duen dokumentazioan aurreikusi ez diren aldaketei egiten diela erreferentzia. Esparru akordioak dira, eta 2015eko ekitaldiko fiskalizazio txostenean alegaturikoa errepikatzen da:

“Ius variandi izenekoak erreferentzia egiten dio Administrazioak kontratuaren xedea aldebakarrez aldatzeko duen eskumenari; dena den, kasu guztietan, aldaketak egiteko eskumenak muga formal zein materialak ditu, eskumen hori erabiltzeari dagokionez. SPKLTBren bi aldaketa mota hauek aurreikusten dira: pleguan edo lizitazio iragarkian aurreikusten diren aldaketak eta agiri horietan aurreikusten ez direnak. Aldaketa bakoitzerako, araudi, muga eta prozedura bereziak ezartzen dira.

SPKLTBren 106. artikulua kontratua modu konbentzionalan aldatzeko aukera aurreikusten du, hau da, aukera ematen du kontratuaren baldintzak aldatzeko, betiere zehaztasun osoz betetzen badira arau horretan aurrez ezarritako baldintzak. Hain zuzen ere, hau esaten du: *‘Aukera izango da sektore publikoko kontratuak aldatzeko, betiere pleguetan edo lizitazio-iragarkian aukera horren berri berariaz eman bada, eta alderdi hauek modu argi, zehatz eta ezin nahasizkoan zehaztu badira: kontratua zein baldintza betez aldatu ahal izango den, aldaketek zer helmen eta muga izango dituzten, kontratu-prezioaren zer ehunekori eragin ahal dioten gehienez, eta zein prozedurari jarraitu behar zaion’.*

Gainera, SPKLTBren 88.1 artikulua honako hau esaten du: *‘Baldin eta, 106. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, pleguetan edo lizitazio iragarkian kontratua aldatzeko aukera aurreikusi bada, aurreikusitako aldaketa guztiak kontuan hartuta kontratuak gehienez ere izan dezakeen zenbatekoa joko da balio zenbatetsizat’.*

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia: 21

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatulako 39. puntuak honako hau aurreikusten du:

“39.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK: (...)”

UPV/EHUK, ikastegietan sortutako premien arabera, behar dituen elementuak eskatuko dizkio enpresa adjudikatariari. Hau da, unibertsitateak ez du bere egingo, adjudikatariari, kontratuak indarrean dirauen bitartean, eskatu beharreko unitateen gutxieneko edo gehieneko kopuruaren gaineko konpromisorik.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

UPV/EHUK, bere premien arabera, kontratua aldatu ahal izango du, hornitu beharreko ikastegi eta bulegoen kopurua murriztuz zein gehituz, kontratuaren prezio berean eta kontratu epearen barruan, legeak ezarritako betekizun eta mugak betiere errespetaturik. Produktu berrien hornidura ere kontratatu ahal izango du, kontratuaren helburuko produktuen antzekoak eta aldeak ados jartzen badira”.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia: 24

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatulako 12. puntuak honako hau aurreikusten du:

“(…) Esparru akordioaren indarraldian zehar entrega puntuak gehitu edo gutxitu ahalko dira, eta horren berri emango zaio dagokion lotearen enpresa adjudikaziodunari.

Unibertsitateak beharrezkotzat joz gero, 2. lotean adierazitako biltegiratze tangaren bat kendu ahalko da, betiere arrazoituta.

Aurkezpenak honako hauen arabera egingo dira: Tangaren instalazioa, muntaketa eta doikuntza, baita produktua entregatzea ere jarraian adierazitako espazioan eta lekuan:

1. Lotea: Eskatzen duten 3 campusetako UPV/EHUko ikastegiak.
2. lotea: biltegiratze tangak Plegu Teknikoaren Eranskinean adierazitakoa izango da.
3. Lotea: Eskatzen duten 3 campusetako UPV/EHUko ikastegiak.
4. lotea: Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Sarriena auzoa, z.g., Leioa 48940”.

Esandako hori gorabehera, HKEE erreferentzia egiten ari bada aurrekontu mugatudun hornidura eta zerbitzu kontratuak arautzen dituen SPKLTBren 34. xedapen gehigarriari, honako paragrafo hauetan adierazten dena argudiatzen da.

Aurretik, beharrezkoa da azpimarratzea erreferentziako kontratuaren xedea unitateko prezioaren araberako hornidura dela, eta, SPKLTBren 9.3 artikuluko a) ataleko legezko agindua zehaztasunez betetze aldera, horren esleipena enpresari bakar batekin egiten diren esparru akordioak arautzen dituen III. liburuko II. tituluko II. kapituluan aurreikusitako arauen arabera egin zela.

Hori adierazi ondoren, aztertu beharko litzateke ea SPKLTBren 34. xedapen gehigarria esparru akordioei aplikatu behar zaien ala ez.

Horri dagokionez, aintzat hartu beharra dago Andaluziako Juntaren Kontratazio Administratiboaren Aholkularitza Batzordeak uztailaren 15eko 2/2015 txostenean adierazitakoa; horrek erreferentzia egiten zion SPKLTBren 9.3 a) artikuluan arautzen den unitateko prezioko segidako traktudun hornidura kontratuari.

Andaluziako Juntako Kontu Hartzailatza Nagusiak Batzordeari galdetu zion, bestek beste, ea SPKLTBren 34. xedapen gehigarria esparru akordioei aplikatu behar zaien, edo horietatik eratorritako kontratuei soilik. Eratorritako kontratuak izapidetzea derrigorrezkoa ez den kasuetan xedapen hori zein kasutan aplikatu behar den ere galdetu zion.

Batzordeak hau erantzun zuen: (...)



”3.- Hirugarren galderan esaten da ea SPKLTBren 34. xedapen gehigarria esparru akordioei aplikatu behar zaien edo horietan oinarritutako kontratuei soilik.

SPKLTBren 34. xedapen gehigarriak honako hau esaten du:

Administrazio Publikoek eta sektore publikoko beste erakunde batzuek izapidetzen dituzten aurrekontu mugatuko hornidura eta zerbitzu kontratuetan, enpresariak askotariko ondasunak eman behar dituenean edo zerbitzua behin eta berriz eman behar duenean, unitateko prezioa kobratuta, eta kontratua egiteko unean haren xede diren entrega edo prestazioen kopuru zehatza adierazi ez bada, horiek Administrazioaren beharren arabera direlako, gehieneko aurrekontu bat onetsi beharko da.

Kontratuak indarrean dirauen bitartean benetako beharrak hasiera batean aurreikusitakoak baino handiagoak balira, dagokion aldaketa izapidetu beharko da. Horretarako, lizitazioa arautzen duten agirietan aurreikusi beharko da egoera hori dela eta kontratua aldatzeko aukera, lege honen 106. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Aipatutako aldaketa hasieran onartutako gehieneko aurrekontua agortu baino lehen izapidetu beharko da, eta behar besteko kreditua gorde beharko da behar berrien gehieneko zenbatekoa estaltzeko”.

Xedapen hori birgaitzeari eta hiri berroneratzeari eta berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen azken xedapenetako hamahirugarrenak txertatu zuen, honako hau dio haren hitzaurreak:

“Azken xedapenetako hamahirugarrenaren bitartez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina aldatzen da (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), eta hogeita hamalagarren xedapen gehigarria eransten zaio; xedapen horren arabera, unitateko prezioak eta ondasunak hurrenez hurren emanez gauzatzen diren kontratuetan, kontratua esleitzeko lizitazio xede izan zen gehieneko aurrekontua gainditzen duten Administrazioaren eskariak kontratu horren lizitazioa arautzen duen dokumentazioan aurreikusitako aldaketatzat hartuko dira”.

SPKLTBren hogeita hamalagarren xedapen gehigarri horrek zehatz islatzen du lehenago aipatu den hornidura kontratuaren eta esparru akordioaren arteko konexio falta, Administrazio Publikoen kontratazioa arrazionalizatzeko sistema gisa; izan ere, ezaugarri horiek dituen hornidura kontratu bat eta “kontratua esleitzeko lizitazio xede izan zen gehieneko aurrekontua” baino ez ditu aipatzen, esparru akordioei erreferentziarik egin gabe.

Hori dela eta, garbi dago xedapen hori ez zaiela esparru akordioei aplikatu behar, baizik eta hornidura kontratuei, batez ere, kontuan hartzen bada horixe bera mantentzen dela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurreproiektuaren zirriborroan, eta hornidura kontratuei buruzko arauetan esparru akordioei buruzko erreferentzia desagertzen dela.

Ildo horretan, Kontratu Baliabideen Administrazio Auzitegi Zentralak, 2014ko otsailaren 5eko 88/2014 ebazpenean (1026/2013, 1028/2013 eta 1038/2013 errekurtsioak), honako hau esan zuen:

“Helegile guztien alegatu honek erreferentzia egiten dio Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 34. xedapen gehigarriari; haren ustez, prozedura honi xedapen



hori aplikatu behar zaio, hura argitaratu eta hurrengo egunean jarri baitzen indarrean (ekainaren 26ko 8/2013 legea, birgaitzeari eta hiri berroneratze eta berrikuntzari buruzkoa). Arau horren denboraren arabera aplikagarritasuna gorabehera, berriz ere aipatu beharra dago aurreko oinarri juridiko batzuetan ere esan dena. Aurkaratzen diren pleguek eta hautaketa prozedura irekiaren bitartez gauzatzen direnek esparru akordio bati egiten diote erreferentzia, eta ez hornidura kontratu bati.

Esparru akordioa kontratazio publikoaren arrazionalizazio teknikoko sistema gisa definitzen da, eta ez hornidura kontratu gisa; ondorioz, ezin zaio aipatutako xedapen gehigarria aplikatu, horrek hornidura eta kontratu zerbitzuei baino ez baitie egiten erreferentzia”.

Erreferentziako kontratuaren xedea unitateko prezioaren arabera hornidura da, ondorioz, SPKLTBren 9.3 artikuluko a) ataleko legezko agindua zehaztasunez betetze aldera, enpresari bakar batekin egiten diren esparru akordioak arautzen dituen III. liburuiko II. tituluko II. kapituluaren aurreikusitako arauen arabera egin zen horren esleipena. Hori dela eta, zalantza handirik gabe adieraz daiteke unitateko prezioa segidako traktudun hornidura, hornidura kontratu modalitate gisa konfiguraturik gelditzen dela, eta SPKLTBk ezarritako ezaugarri espezifiko bat aurkezten duela; izan ere, kontratu horren esleipena enpresari bakar batekin egiten diren esparru akordioetarako aurreikusitako arauekin bat egin da, besteak beste kontratuaren gehieneko balio zenbatetsia ezartzeko arauak (hemendik aurrera GBZ).

Horri dagokionez, adierazpen doktrinal ugari saiatu dira argitzen ea esparru akordioaren GBZ eratorritako kontratuen muga kuantitatiboa den. Hala, aho batez ondorioztatu da esparru akordioetan ez dela agertu behar kontratuaren edo kontratuen aurrekontua, eta hori zentzuzkoa da; izan ere, ez dago esparru akordio batetik ondorioztatzen diren kontratuentzako edo kontratatzen diren zenbatekoentzako mugarik (balio zenbatetsia ez da muga). Lehenik eta behin, aipatu beharra dago 2012ko azaroaren 20ko 17/12 txostena, Estatuko Kontrataziorako Batzorde Aholkuemailearena, non ondorioztatzen baita esparru akordioaren GBZ ez dela gainditu ezin daitekeen sabai juridiko eta ekonomikoa.

“Ondorioz, bere funtzioa balio zenbatetsiarena, alegia] aurrekontuaren funtzioaren bestelakoa da. Kontzeptu horrek tradizioa du kontratazio publikoari buruzko Espainiako zuzenbidean; hain zuzen ere, erreferentzia egiten dio kontratuaren arabera kontratazio organoak konprometitu dezakeen gehieneko mugari. [...] Horren xedea da kontratuan hasiera batean aurreikusitako gehieneko gastuaren zenbatekoa zehaztea eta behar besteko zenbatekoan eskuragarri egon behar duen kreditu egokiarekin estaltzen dela egiaztatzea. Horren ondorioz, zuzenean nahiz zeharka gastua dakarten kontratu edo negozio guztietan finkatu behar da aurrekontua, baina ez baldintza hori betetzen ez dutenetan, eta hori da esparru akordioaren kasua. Esparru akordioak ez du muga kuantitatorik gastuari dagokionez; izan ere, betebeharrak ekonomikorik ez dakarrenez, ez du aurrekonturik. Hala ere, espedientean zenbatespenak ager daitezke, beharizan publiko batzuk estaltzeko esparru akordio bat justifikatze aldera, eta baliteke akordioa araudi harmonizatupeko kontratuen erregimenera ekartzea”.



Ildo beretik, Balearretako Kontrataziorako Batzorde Aholkuemaileak, 9/2013 txostenean, argi eta garbi adierazten du honako hau: “Esparru akordioaren balio zenbatetsia ez da muga kuantitatiboa akordio horretatik eratorritako kontratueterako; ondorioz, baliteke eratorritako kontratuek, osotara, esparru akordioan adierazitako balio zenbatetsia gainditzea.”

Interpretazio horri berari erantzuten dio duela gutxi Madrilgo Erkidegoko Kontu Hartzailletza Nagusiaren esparru akordioei buruzko txostenak, 2017ko martxoaren 13an argitaratu zenak. Txosten horretan, Estatuko Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkuemailearen azaroaren 20ko 17/12 txostenean adierazitako iritzia jasotzen zen; besteak beste, hau esaten zen:

“Esparru akordioetan, ‘balio zenbatetsia’ adieraziko da. Balio zenbatetsia komunitate kontzeptu bat da, eta, besteak beste, araudi harmonizatuaren mendeko kontratuak (SARA kontratuak izenekoak) zehazten ditu. SPKLTBren 88.8 artikulua arabera, ‘Esparru akordioetarako eta eskuratzeko sistema dinamikoetarako, horiek iraun bitartean aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe’. Hori dela eta, esparru akordioaren balio zenbatetsia esparru akordioaren kontratazio espedientearen prestaketa eta esleitze faseetan aritzen da, komunitate publikitatearen atalaseari dagokionean eta, bere kasuan, baliabideen erregimenerako”.

Bestalde, indarreko kontratuak dituzten prestazioetan, esleitutako zenbatekoa 878.630 euroan gainditzen duten gastuak azaleratu dira (ikus A.14.2)”

ALEGAZIOAK

Adierazitako gehiegizko fakturazioari dagokionez, esparru akordioak direnez, azaldutakotzat jo dadila aurreko puntuan eginiko alegazioa (“fakturatutako zenbatekoak urteko gehiengo aurrekontua gainditzen du”), zeinak indargabetu egiten duen oharra, are gehiago aintzat hartzen badugu UPV/EHUK gastuaren dezentralizazioarekin lotuta duen berezitasuna.

Uda Ikastaroak Fundazioak 366.948 euroren ondasun eta zerbitzuak kontratatu ditu publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe (ikus A.15.2).

ALEGAZIOAK

2015ean, UPV/EHUK erabaki zuen aldatzea Fundazioaren Zuzendaritzaren antolakuntza; kargu akademikoak sortzeaz gainera (zuzendaria, zuzendariordea, idazkaria), administrari orokor bat kontratatu zen. Azken figura hori ez zen existitzen, eta aurreko mugek ez zioten aukerarik eman Fundazioari urratsak egiteko kudeaketaren hainbat alorretan.

Zuzendaritza talde berria lanean hasi zenean, neurriak hartu ziren Fundazioaren kudeaketa eguneratzeko.



Honako neurri hauek, besteak beste:

- . 2016an, ez zegoen publizitate tresnarik (hala nola kontratugilearen profila). Urte horretan, web orria eta kontratugilearen profila sortu ziren.
- . 2016ko martxoan, kontrataziorako barne jarraibideak onartu ziren, eta jarraibide horiek egokitu egin dira 9/2017 Lege berrira, lege horren bosgarren xedapen iragankorrak ezarritakoaren arabera.
- . Bidaia Agentzia:
 - Aspalditik ari zen lanean bidaia agentzia batekin eta ez zen denborarik izan 2016ko ediziorako lehiaketa prestatzeko, urtebete lehenago hasi baitzen haren antolakuntza. Fundazioak edizioa lan egiten du, eta haren lana ekainetik irailera bitarteko epean kontzentratzen da.
 - 2017ko ediziorako atera zen lehiaketara, publizitate eta konkurrentzia baldintzak betez.
- . Catering:
 - Bidaia agentziaren kasuan bezala, aspalditik ari zen lanean enpresa batekin eta ez zen denborarik izan 2016ko ediziorako lehiaketa prestatzeko. Fundazioak edizioa lan egiten du eta haren lana ekainetik irailera bitarteko epean kontzentratzen da.
 - Miramar Jauregiaren egoera ezegonkorra zen -Udako Ikastaroen egoitza-; berritze/bideragarritasun proiektu batean sartuta zegoen, eta horrek zalantzak sortzen zituen eskaini beharreko zerbitzuei buruz. Bazirudien jauregiak lehiaketara atera behar zuela bere catering zerbitzua, eta ondorioz erabaki zen 3 gonbidatzea edizio bakoitzerako, 2017tik hasita, ez zuelako denborarik eman 2016rako egiteko. Une honetan, luzatzen ari denez jauregiaren etorkizunari buruzko erabakia, erabaki da 5 urterako ateratzea lehiaketara, baldintza hori aintzat hartuko duen klausula batekin.
 - 2017 eta 2018ko bolumena 2016koa baino txikiago izan da, zuzenean fakturatu zaizkielako babesleei kongresuen catering-ak. (2017: 42.037,81 / 2018: 67.076,31)
 - Une honetan, luzatzen ari denez jauregiaren etorkizunari buruzko erabakia, erabaki da 5 urterako ateratzea lehiaketara, klausula batekin, Miramar Jauregiak edo beste egoitzek catering zerbitzurik izanez gero.
- . Kudeaketa plataformaren garapena
 - 2015ean, 5 eskaintza eskatu ziren. Konkurrentzia egon zen; ez zen egon publizitaterik, besterik gabe.
 - Ez zen ezagutzen plataformaren garapenaren egiazko irismena, ezta erabil genezakeen aurrekontua ere. Proiektua planteatu zitzaizen 5 enpresari, eta soilik batek egin zuen eskaintza (onartu egin zen). Hortik aurrera, ad hoc garapen bat izanik, aurrekontu erabilgarriaren arabera garatuz joan da, eta orain asistentzia teknikoarekin gaude.



- . Irudi korporatiboa eta 2016ko kanpaina
 - Zerbitzu batzuk kontratatu ziren irudi korporatiboa eta 2016ko kanpaina garatzeko, beharren arabera; kontzeptu eta zenbateko desberdinak.
 - Erabilgarri zegoen aurrekontuaren eta beharren arabera egin zen.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. EHUK Berariazko Geldikinaren atala osatzen duten aurrekontuko aplikazio ugarien eta ikerkuntza kontratuen amaieraren gaineko kontrol ezaren ondorioz (ikus III.1), ezin ondorioz atera dezakegu horren zuzentasunaz 2016ko abenduaren 31n. Nolanahi dela ere, hori osatzen duten kontu-sail eta programen lagin bat aztertzeetik ondorioztatu dugu horietako zenbaiti Gastu Orokorretarako Geldikin izaera eman behar litzaiekeela. Ondare-kontabilitateko terminoetan, horrek esan nahi du “Diru-laguntza bihur daitezkeen epe laburreko zorrak” balantzeko kontu-sailaren saldo zati batek (ikus A.11), zenbatetsi ezin denak, ondare garbiaren atal behar lukeela izan.

ALEGAZIOAK

Unibertsitateak baditu berariazko geldikinaren atala osatzen duten aurrekontu aplikazio guztiak kontrolatzeko eta bakoitzaren xehetasunak adierazteko sistemak. Nolanahi ere, kontu sail horietako batzuk hurrengo ekitaldian sartu ala ez balioesterakoan egon daitezke irizpide desberdinak.

2. Ibilgetu materialak bibliografia funtsei dagokien idazpuru bat barne hartzen du, ekitaldi itxieran 22,3 milioi euroren kontularitzako balio garbia zuena erregistraturik (ikus A.5). EHUK ez du funts horien gaineko inbentario banakatu eta balioztatua, 2012tik 2016ra bitarteko ekitaldietan egindako erosketetarako izan ezik, eta honenbestez, ez dezakegu kopuru horren zuzentasunari buruzko ondorioz atera.

ALEGAZIOAK

Unibertsitateak hasiera-hasieratik ditu bertako ondare bibliografikoa osatzen duten liburu guztien fitxak. Finantza kontabilitatea ezarri zenetik, beharrezkoa da unibertsitatearen funts bibliografikoak balioestea, eta orduetik ondare bibliografikoaren erregistroaren osagarri den kontabilitateko prozesu arrunt gisa egiten da. Lehen, balioespen hori ez zen beharrezkoa aurrekontuaren kontabilitatean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontuko aldaketak

Aurrekontuko aldaketen erregimena baliatuta 2016ko aurrekontuan 12,6 milioi euroren kredituak zuzkitu ziren eta ekitaldi itxieran kopuru hori kapituluuan jasoa gordetzen zen aurrekontuko kontu-sail jakinei esleitu gabe. Hona hemen xehapena:

Euroak milakotan				
KAPITULUA	TXERTAKETAK	GAIKUNTZAK	TRANSFERENTZIAK	GUZTIRA
Langileria-gastuak	6.718	394	6.982	14.094
Funtzionamendu gastuak	3.709	-	(6.717)	(3.008)
Transferentzia arruntak.....	4	-	(44)	(40)
Inbertsio errealak.....	1.407	-	104	1.511
GUZTIRA	11.838	394	325	12.557

Aldaketa horiek berariazotasun printzipioa urratzen dute, zeinaren arabera haien eraginpeko aurrekontuko kontzeptuak zeintzuk diren berariaz adierazi behar duten.

ALEGAZIOAK

Ikerketa proiektuetako funtsak esleitzean, ez dakigu zer partida zehatz erabiliko den gastua ordaintzeko, kapitulua zehaztuta egon arren, eta horixe da hain zuzen horrela jardutearen arrazoia.

Gastua kontabilizatzen denean, dagokion aurrekontu kontzeptua erabiltzen da; ondorioz, gastua dagokion kontzeptuan jasota geratzen da.

Aurrekontua eta Ekonomia Txostena onestean atzerapena

Gobernu Kontseiluak 2016ko ekitaldiko Aurrekontu Proiektua 2016ko otsailaren 4an onartu zuen eta Kontseilu Sozialak aurrekontua urte horretako martxoaren 17an onartu zuen; ordea, ekitaldia hasi aurretik onartu behar zatekeen. Ekonomia txostenari dagokionez, Kontseilu Sozialak 2017ko urriaren 25ean onetsi zuen, EUSLren 106.2 artikuluan aurreikusitako epea gaindituta, urte bakoitzaren lehenengo seihilekoan egitea aurreikusten baitu.

ALEGAZIOAK

EAEko aurrekontuen onespina atzeratzearen ondorioz, ez genituen garaiz eskuratu EHUKo aurrekontu araudiak ezarritako epean prest izateko behar genituen datu guztiak.



Langileria

2016ko azaroaren 3an EHUren Gobernu Kontseiluak Irakasle eta Ikertzaile lan kontratupeko eta funtzionarioen LZ gaurkotzea onartu zuen, EHAAn argitaratu ez dena. Irakasle eta Ikertzaileen LZren azken argitalpena 2015eko uztailaren 23koa da.

ALEGAZIOAK

2017ko abenduaren 14an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak irakasle-ikertzaile lan kontratudunen eta funtzionarioen lanpostuen zerrenda eguneratua onartu zuen, baina ez da argitaratu EHAAn.

III.2. ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

Aztertutako kontratuetako akatsak (ikus A.14.1)

2016an aldizkako argitalpen elektronikoetara harpidetzeko hiru kontratu esleitu zaizkie (6, 7 eta 8 espedienteak) eskusibitateagatik publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta argitalpen horien banaketa-eskubideak zituzten argitaletxei, guztira 2,6 milioi euroren zenbatekoan. Gomendagarria litzateke espedientean argitalpen elektroniko horiekiko interesa dokumentatzea, merkatuan izan daitezkeen beste batzuen aldean.

ALEGAZIOAK

Espedienteak: 6, 7 eta 8.

Esan beharra dago argitalpen horiek erosi direla, eta ez beste batzuk, UPV/EHUren berezitasuna dela eta; izan ere, goi mailako hezkuntzaren eta ikerketaren arloko erakundea da eta horien beharra du bere jarduerak gauzatu ahal izateko, gainera, haien kontratazioa irakasle-ikertzaileen eskaerak jasotzen dituen Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren mende dagoen Unibertsitateko Liburutegiak agintzen du.

Guztira 1,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru espedientek (2, 13 eta 15 zk. espedienteak) ez dute betetzen aurreikusitako aldaketetarako bereizten diren mugak eta/edo baldintzak modu argi eta zehatzean zehazteko eskakizuna. (SPKLTBren 106. artikulua).



ALEGAZIOAK

Aldez aurretik adierazi beharra dago SPKLTBk egiten duen 106. artikulua aipamenak lizitazioa arautzen duten dokumentuetan aurreikusitako aldaketei egiten diela erreferentzia:

“Aukera izango da sektore publikoko kontratuak aldatzeko, betiere pleguetan edo lizitazio iragarkian aukera horren berri berriaz eman bada, eta alderdi hauek modu argi, zehatz eta ezin nahasizkoan zehaztu badira: kontratua zein baldintza betez aldatu ahal izango den, aldaketek zer helmen eta muga izango dituzten, kontratu prezioaren zer ehunekorri eragin ahal dioten gehienez, eta zein prozedurari jarraitu behar zaion.

Ondorio horietarako, kontratua alda daitekeen kasuak zehatz-mehatz definitu beharko dira, erreferentzia eginez objektiboki egiazta daitezkeen egoerei, eta balizko aldaketaren baldintzak ere behar adinako zehaztasunez adierazi beharko dira, lizitatuak balioetsi ahal izan ditzaten beren eskaintza egite aldera, eta aintzat hartu ahal izan daitezen, lizitatuak gaitasun baldintzak eskatzeari eta eskaintzak balioesteari dagokionez”.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 2

2012ko ekainean lizitaturiko Esparru Akordioaren luzapen bat da, beraz, ez dagokio espedientearen hasierako konfigurazioaren balioespenak egitea.

2016ko ekitaldian orduko Esparru Akordioan oinarrituriko kontratuen berritzearen eta adjudikazioaren izapidetzea fiskalizatu beharko litzateke.

Nolanahi ere, adierazi beharra dago lizitazioa zuzentzen duten dokumentuetan ez dagoela kontratua modu konbentzionalean aldatzeko inolako aurreikuspenik, SPKLTBren 106. artikuluan ezarritako baldintzetan, ez espediente horren Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan, ez lizitazio iragarkian,; hori dela eta, erabaki zen legez onartutako gaitasun hori ez erabiltzea, beste edozein aukera bezala, askatasuna baitago erabiltzeko zein ez erabiltzeko.

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatularen 3. puntuan bakarrik aipatzen da honako hau:

“Esparru akordioa izanik, ez da ezarri lizitazio aurrekonturik. Honako datu hauek eskaintzen dira, informazio gisa: urteko gastu orientagarria 165.289,26 euros + 34.710,74 euros BEZ dira, guztira 200.000 euros obretarako, eta mantentze lanak izandako matxuren arabekoak izango dira. Aurreko esparru akordioaren iraunaldian ez da konponketarik egin behar izan.

Adierazitako aurrekontua orientagarria da eta ez dakar berekin urteko gastuarekin loturiko konpromisorik, aldi bakoitzean suertatzen diren premien mende egongo baita.

Prezioa zerbitzuaren betetze unitateen arabera ezartzen denez, gastu efektiboaren zenbateko osoa Administrazioaren egiazko beharrek baldintzatzen dute, eta ondorioz, ez dago behartuta ez unitate kopuru jakin bat eskatzera ez aurrekontu osoa gastatzera”.

Alegazio gisa har bedi 21. eta 24. espedienteetarako eginikoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 13

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatulako 18.1 puntuan aurreikusitakoaren arabera kontratistaren betebeharra izango da kontrataturiko mantentze lanei eragiten dien legezko edo arauzko edozer aldaketa berehala jakinaraztea.

18.2 puntuak honako hau dio: “UPV/EHUK beretzat gordetzen du argibide teknikoak eskatzeko eskubidea, ikastegietarako bisita gehiago eskatzekoa, baita enpresa kontratistak bidalitako dokumentuak berrikusi ostean aldaketak eskatzekoa ere”.

18.4 puntuan honako hau: "Kontatuaren indarraldian edo haren luzapenetan zehar Gipuzkoako campuseko egungo instalazioei edo etorkizunean izan ditzakeen instalazio berriei eragiten dieten aldaketek kontratua aldatzea eragin ahalko dute. Mantentzean bildutakoak baino ekipamendu gehiago eskuratuko balira, eskuratu diren horiei dagozkien kostuak adjudikazioan jasotako prezioei lotuta egongo dira”.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 15

Ez adierazitako espedientearen Administrazio Baldintza Partikularren Plegu direlakoetan ez lizitazio iragarkian ez dago kontratua modu konbentzionalean aldatzeko inolako aurreikuspenik, erabaki baitzen legez onartutako gaitasun hori ez erabiltzea, beste edozein aukera bezala, askatasuna baitago erabiltzeko zein ez erabiltzeko.

2 milioi euroan esleitutako lau espedientetan (2, 10, 13 eta 15 zk. espedienteak) balio zenbatetsiaren kalkulua okerra da (SPKLTBren 88. artikulua), ez baitira balizko espediente-aldaketak barne hartzen eta horietako batean ezta mantentze-lanaren balorazioa ere.

ALEGAZIOAK

Lehenik eta behin “balio zenbatetsi” kontzeptua erreferentzia gisa erabiltzen da kontratazio prozeduraren erregimen juridikoaren zenbait alderdi mugatzeko, zehazkiago:

- Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak zehazteko.
- Lizitazioen publizitate erregimena.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 2

2012ko ekainean lizitaturiko Esparru Akordioaren luzapen bat da, beraz, ez dagokio espedientearen hasierako konfigurazioaren balioespenak egitea.

2016ko ekitaldian orduko Esparru Akordioan oinarrituriko kontratuen berritzearen eta adjudikazioaren izapidetzea fiskalizatu beharko litzateke.

Nolanahi ere, zegokiona baino balio zenbatetsi handiagoa zuela azpimarratu nahi dugu, kontratuaren xedearen eta akordioaren 3 urteko iraupenaren gehi urtebeteko aurreikusitako luzapenaren arabera eginiko urteko gastuaren zenbatespenari jarraikiz.

Balizko aldaketarik jaso ez dela dioen puntuari dagokionez, berriz ere diogu Balearretako Kontrataziorako Batzorde Aholkuemaileak, 9/2013 txostenean, argi eta garbi adierazten duela honako hau: "Esparru akordioaren balio zenbatetsia ez da muga kuantitatiboa akordio horretatik eratorritako kontratueterako; ondorioz, baliteke eratorritako kontratuek, osotara, esparru akordioan adierazitako balio zenbatetsia gainditzea." eta *ius variandi*ari buruz eginiko alegazioa.

Dagokigun kasuan, lizitazioaren esleipen prozeduraren eta publizitatearen ondorioetarako, ez da arau hausterik egon, bai prozedura, bai publizitatea, SPKLTBren 142. artikuluan aurreikusitakoari egokitu baitzitzaizkion.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 10

Kasu honetan, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatulako 18. puntuan aurreikusitako aldaketa honako baldintza hauetan ezartzen da:

18.1.- KONTRATUAREN ALDAKETAK:

"Kontratuaren indarraldian zehar erabiltzaile kopurua handitu edo txikitu egiten bada, prezio gisa hartuko dira aintzat enpresa adjudikaziodunak eskainitakoak, betiere SPKLTBn ezarritakoaren % 10aren gehieneko mugarekin".

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatulako 21. puntuaren balio zenbatetsia kontratuaren hasierako 24 hilabeteko iraupenari eta 12 hilabete gehiagoko luzapenari dagozkio. Ez da % 10a sartu, baina lizitazioaren esleipen prozeduraren eta publizitatearen ondorioetarako, ez da arau hausterik egon, bai prozedura, bai publizitatea, SPKLTBren 142. artikuluan aurreikusitakoari egokitu baitzitzaizkion.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 13

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatulako 21. puntuaren balio zenbatetsia zuzena da, kontratuaren hasierako 12 hilabeteko iraupenari eta 12 hilabete gehiagoko luzapenari dagozkio. Ez da kontratuaren balizko aldaketarik aurreikusten. Lizitazioaren esleipen prozeduraren eta publizitatearen ondorioetarako, ez da arau hausterik egon, bai



prozedura, bai publizitatea, SPKLTBren 142. artikuluan aurreikusitakoari egokitu baitzitzazkion.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 15

Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren karatulako 21. puntuaren balio zenbatetsia kontratuaren hasierako 3 hilabeteko iraupenari eta 3 hilabete gehiagoko luzapenari dagozkio. Ez da kontratuaren balizko aldaketarik aurreikusten. Lizitazioaren esleipen prozeduraren eta publizitatearen ondorioetarako, ez da arau hausterik egon, bai prozedura, bai publizitatea, SPKLTBren 142. artikuluan aurreikusitakoari egokitu baitzitzazkion.

Guztira 2,1 milioi euroan esleitutako hiru espedientetan (2, 4 eta 5 espedienteak) “hobekuntzak” esleipen irizpideen garapena ez da behar hainbatekoa ez karatulan, ez pleguetan ere (SPKLTBren 150. artikulua).

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 2

2012ko ekainean lizitaturiko Esparru Akordioaren luzapen bat da, beraz, ez dagokio espedientearen hasierako konfigurazioaren balioespenak egitea. 2016ko ekitaldian orduko Esparru Akordioan oinarrituriko kontratuen berritzearen eta adjudikazioaren izapidetzea fiskalizatu beharko litzateke. ¹

Springer argitaletxearen aldizkako argitalpen elektronikoetara harpidetzeko espedientean, 699.562 euroren zenbatekoan esleitutakoan (7. espediente), pleguetan aurreikusitako prezioen berrikusketa ez zaio EAOLen 88. xedapen gehigarriari egokitzen, ez baita kostuetara lotzen.

ALEGAZIOAK

SPKLTBren 20. artikuluan aurreikusitakoaren arteko kontratu pribatuetako bat da. Artikulu horren arabera “kontratu pribatutzat joko dira Administrazio Publiko batek egiten dituenak eta xedetzat dutenak aldizkari, aldizkako argitalpen eta datu baseetarako harpidetzak”. Eta eransten du, prestakuntzari eta esleipenari dagokienez, eta arau espezifikorik ezean, adierazitako legean eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko

¹ HKEEk aztertu duen espediente 2016ko azaroan esleitu zena da eta ez 2012an esleitu zenaren luzapena, alegazioan esaten den moduan.



direla, eta osagarri gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauetan edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko arauetan ezarritakoa aplikatuko zaiela, subjektu edo erakunde kontratugilearen arabera. Haien eraginei eta iraungitzeari dagokionez, kontratu horiek zuzenbide pribatuari jarraituko diote.

Ez dezagun ahaztu SPKLTBko bederatzigarren xedapen gehigarria, prestakuntzari eta esleipenari dagokionez:

“Datu-baseetarako sarbidea kontratatzeke eta argitalpenen harpidetza egiteko arau bereziak.

1. Aldizkarien eta beste argitalpen batzuen harpidetza –euskarria dena delakoa izanik ere– eta datu-base berezietan jasotako informazioan sartu ahal izatea kontratatzea –zenbatekoa edozein delarik ere– erregulazio harmonizatuko kontratuen multzokoa ez denean, lege honetan kontratu txikietarako zehaztutako baldintzen arabera egiteko modua egongo da, betiere hornitzaileen baldintza orokorrak beteta, ordaintzeko modua ere horien artean dela. Kasuotan, zenbatekoa kontratuaren baldintzetan esandako moduan ordainduko da, eta posible izango da entrega egin edo prestazioa gauzatu aurretik ordaintzea, hori baldin bada merkatuko ohitura.
2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren kontratuak bide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egiten direnean, kontratua egingo duten sektore publikoko ente, organismo eta erakundeak kontsumitzailetzat joko dira, informazioaren gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoaren arloko zerbitzuei buruzko legerian aurreikusitako ondorioetarako”.

Hortaz, aintzat hartu behar dira berezitasun horiek eta espedientearen karatulan aurreikusitakoa, zeinetan honako hau adierazten den esanbidez: *“Horrekin lotuta, aintzat hartu behar da kontratuaren izaera pribatua, baita ohiko merkatuko erabilerak halako produktuak kontratatzerakoan, eta hurrengo urteko luzapena egingo den baldintzei dagokienez, UPV/EHUren eta kontratistaren artean adostuko dira, urteko lehenengo hiruhilekoan, baina, adosten ez diren bitartean, kontratazio honetatik eratorritako itunei eutsiko zaie.*

Horretaz gain, adierazi beharra dago haren luzapenak berekin ekarriko lukeela kontratuaren xede diren edukiak eguneratzea, eta horrek honako hau ekarriko lukeela berekin:

- SPKLTBk ezarritako mugen barruan zehaztu beharreko prezioaren gorakada bat, 2016. urteko oinarri zenbatekoaren % 10era arte.
- Argitaletxeak erabilera lizentzia berriak igortzea.

Aurrekoa gorabehera, jasota geratzen da kontratuaren luzapenak ez diela, inola ere, haren oinarrizko elementu edo ezaugarriei eragingo, eta beraz aldaezin eutsiko zaiela haiei, SPKLTBren 23. artikuluan aurreikusitakoarekin bat”.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak erreferentzia egiten dion 2014ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legaren 88. xedapen gehigarriak dioenez, berrikuspena egitea badagokio, kostuen bilakaera islatu beharko du, baina jarraitzen du esanez berrikuspen hori zerbitzu publikoen kudeaketari aplikagarri zaizkion tarifa edo moneta balioak berrikusteko



sistemen onarpenari izango zaiola aplikagarria, edozein dela ere hautatutako prestazio modalitatea, zuzeneko ala zeharkakoa; eta dagokigun kontratua ez da zerbitzu publikoak kudatzekoa.

Guztira 14,6 milioi euroan esleitu eta 2016an 8,2 milioi euroan egikaritutako sei espedientetan (2, 20, 21, 24, 26 eta 29 zk. espedienteak) ez dago jaso esparru-akordioaren arabera egindako esleipenen harrera-akta (SPKLTBren 222.2 artikulua).

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 2

2012ko ekainean lizitaturiko Esparru Akordioaren luzapen bat da, beraz, ez dagokio espedientearen hasierako konfigurazioaren balioespenak egitea.

2016ko ekitaldian orduko Esparru Akordioan oinarrituriko kontratuen berritzearen eta adjudikazioaren izapidetzea fiskalizatu beharko litzateke.

Nolanahi ere, Aragoiko Autonomia Erkidegoko kontratazio Administratiboetako Aholkularitza Batzordearen irailaren 25eko 19/2013 txostenaren arabera, zeinetan SPKLTBren kontratuak jaso eta likidatzeari buruzko 222.2 eta 222.4 artikuluetan xedatutakoa kontratu txikiei aplikagarri zaien zalantza aztertzen den.

Kontratu txikien izaera dela eta, Batzorde Aholkuemaile honek aukera izan zuen gai hori aztertzeke irailaren 19ko 16/2012 txostenean. Bertan, hau esaten zen:

“Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Zioen Azalpenean bertan prozedura sinplifikatu gisa ageri da kontratu txikia, eta honela definitzen da: 50.000 eurotik beherako kontratua, obra kontratuen kasuan, edo 18.000 eurotik beherako kontratua, gainerako kontratuen kasuan (betiere BEZik gabe). Kontratu txiki horren prezioa ezin da berrikusi, eta kontratuak ezin du urtebete baino gehiagoko iraupen luzaezina izan; kontratuaren espedientea egiteko eta formalizatzeko, nahikoa izango da gastua onestea eta horri dagokion faktura eranstea, bai eta, obren kasuan, aurrekontua eranstea ere.

Beraz, kontratu txikiaren xedea da administrazio publikoei aukera ematea euren beharrezko erantzuteko, beharizan horien zenbatekoa eta iraupena txikia denean. Hala, kontratu txikien bitartez, esleipena jarduteko gaitasuna eta beharrezko prestakuntza profesionala duen edozein enpresariri zuzenean egin ahalko zaio, prozedura simple eta bizkor baten bitartez, zerbitzu hori eman dezan. Kasu horietan, kontratua publizitate eta konkurrentzia printzipioetatik salbuetsita egongo da”.

Kontratu txikiek bete beharreko arauak APKLANen 72. artikuluan zehazten dira. Hau esaten da bertan: “1. Kontratu txikietan, dagokion faktura kontratu agiri gisa hartu ahal izango da; fakturak abenduaren 18ko 2402/1985 Errege Dekretuak, Arauaren salbuespenak enpresariak eta profesionalek ordainagiria egin eta emateko duten obligazioa arautzen duenak, ezartzen dituen datuak eta ezaugarriak izan beharko ditu (gaur egun, dekretu hori



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak, fakturazio betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duenak, indargabetu du).

Edozein kasutan, fakturan honako hauek agertu beharko dira: a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Fakturen zenbakiak elkarren hurrenekoak izango dira. b) Faktura igortzen duenaren izen-abizenak edo izen soziala, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea. c) Kontratua egiten duen organoa, haren helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia. d) Kontratuaren xedearen deskribapena; zer zerbitzutara bideratuko den adierazi beharko da. e) Kontratuaren prezioa. f) Faktura egin den lekua eta eguna. g) Jaso izana ziurtatzen duen funtzionarioaren sinadura”.

Hori dela eta, kontratu mota honetarako, prozedura sinplifikatu egin da; hala, espedientea honako hauek osatuko dute: organo eskudunak gastua onetsi izanaren ziurtagiriak eta dagokion fakturak. Ekintza horretan kontratuaren likidazioa ere sartuko da. Hori kontuan hartuta, ondoriozta daiteke, prozedura sinplifikatu eta bizkorra denez, SPKLTBren 222.2 artikulua aurreikusten duen formalismoa zenbateko handiagoak dituzten eta ondorioz garrantzitsuagoak diren kontratuentzat dela; kontratu garrantzitsuago horien kasuan, beharrezkoa da jaso izana edo adostasuna adierazten duen ekintza formal bat gauzatzea, hala dagokionean esku hartzailetzaren ordezkariaren laguntzarekin. Kontratu txikien kasuan, ekintza formal horren orde funtzionario baten sinadura beharko da, prestazioarekin adostasuna dagoela adierazteko.

Laburbilduz, ez da beharrezkoa eskaera bakoitza jaso izanaren akta egotea; izan ere, gorago transkribatu den txostenean adierazitakoarekin bat, ulertzen da bete dela prestazioa behar bezala eman dela ziurtatzeko betebeharra, faktura eta emate-agiria sinatu baitira (emate agiria ohiko agiria da merkataritza jardunean). Agiri horien bitartez, Administrazioak garbi erakusten du jaso duen edo eman zaion zerbitzua bat datorrela adostutakoarekin.

Akordioaren iraupenaren epea bukatzen denean, dagokion onespren akta sinatuko da, SPKLTBren 222.4 artikuluan aurreikusitako izapidea, hau da, kontratua likidatzea, betetze aldera.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 20

Xedetzat segidako traktua unitateko prezioaren arabera hornitzea duen esparru akordio baten ondorena da, eta baldintza teknikoan agirian eta administrazio baldintza partikularren pleguetan ezarritako baldintzei jarraikiz, eratorritako kontratuen xedea akordioak irauten duen bitartean laborategien eta ikerketa departamentuen premien arabera eginiko hornidurak dira.

Azaldutakotzat ematen da hutsune horri berari buruzko 2 espedientearentzat eginiko alegazioa, eta Aragoiko Autonomia Erkidegoko kontratazio Administratiboetako Aholkularitza Batzordearen irailaren 25eko 19/2013 txostena.



ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 21

Hasteko, SPKLTBren 9.3 artikulua araberera, hornidura kontratuak dira enpresaburua hainbat ondasun hurrenez hurren eta unitateko prezioa entregatzera behartzen duten kontratuak, ondasun kopuru osoa kontratua egiteko unean zehaztasunez mugatu gabe, ondasunak eskuratu behar dituenaren premien araberera egiteagatik entregak. Hala ere, kontratu horien esleipena enpresaburu bakarrarekin eginiko esparru akordioetarako III. liburu II. tituluko II. kapituluaren aurreikusitako arauen araberera egingo da.

Espedientearen izena “Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzako ikastegietarako laborategi eta instalazio altzarien hornidura” bada ere eta “esparru akordioa” terminoa agertzen ez bada ere, ez du baztertzen hala izatea, aipatutako artikulua hala ezartzen duelako eta espedientearen konfigurazioak, karatulak nahiz PPTak (prezio unitarioak eta ezarritako eskaeren araubidea) horixe akreditatzen dutelako. Nahikoa da aipatzea aho batez onartzen den *nomen iuris* irrelebantzia printzipioa, “errealitatearen lehentasunaren” printzipioa ere deitua, honako hau esan nahi duena: "gauzak diren bezalakoak dira, eta ez aldeek direla dioten bezalakoak”.

Ondorioz, harrera aktei buruzko azalpenari dagokionez, esparru akordioaren kasuetarako berberak izango lirake. Errepikatu egiten da gabezia honi berari buruz 20. espedientearentzat eginiko alegazioa, eta 19/2013 Txostena, irailaren 25ekoa, Aragoiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontratazioko Kontsulta Batzordearena.

Gainera, luzatu egiten da kontratistaren betebeharra, eskaintako bermearen epea amaitu arte (20 urte); beraz, 2034/08/13an amaitzen da.

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 26

Lote bakoitzeko enpresaburu bakar batekin esparru akordio itxi bat burutzea da, xedetzat duena segidako traktu hornidura bat prezio unitario bidez, kontuan izanik baldintza teknikoen orrian eta administrazio klausula partikularretan ezarritakoa. Eratorritako kontratuen helburua hornidura eskaerak dira, laborategien eta ikerketa sailen beharren arabera, kontratuaren exekuzio epean zehar eginikoak, 18.000,00 eurotik beherakoak (BEZ gabe) guztiak.

SPKLTBren 222. artikulua, kontratuak betetzeari eta prestazioa jasotzeari buruzkoak, jasotze edo adostasun egintza formal eta positibo bat egin beharra aipatzen du. Arau hori bateratu egin behar da kontratu txikien arintasun eta malgutasunarekin, halako moldez, non ez den trabarik izango tramitaziorako (kontratu horien munta txikiak determinatzen duena).

Beraz, errepikatu egiten da gabezia honi berari buruz 20. espedientearentzat eginiko alegazioa, eta 19/2013 Txostena, irailaren 25ekoa, Aragoiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontratazioko Kontsulta Batzordearena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

Espediente zenbakia 29

Azaldutakotzat ematen da aurreko alegazioa.

1,5 milioi euroan esleitutako zerbitzu-espedita batean (17. espedita), zerbitzua eman aurreko fase batean lanaren plangintza eta antolamendua balioztatzen duen esleipen irizpideak aurreko esleipendunaren ezagutza balioztatzea eragin du, izan ere, gogoan hartu da kasu horretan ez dela beharrezkoa EHUKo teknikarien esku-hartzea alde aurreko fase horretan.

ALEGAZIOAK

Espedita zenbakia 17

Zerbitzua ematen duen enpresa izanik, beste abiapuntu batean dago, zerbitzua lehen aldiz eman behar duen enpresarena ez bezalako, desberdinak direlako zerbitzuaren baldintzak, hobeak ala txarragoak diren baloratzen hasi gabe.

Ebaluatu beharreko irizpideak alor subjektibokoak izanik, ezin daiteke esan zerbitzuak ematen zituen enpresak puntuazio gorena eman dion abantaila izan duenik, arlo bakoitzean aurkeztutako eskaintzaren ebaluazioak puntuazio hobea lortu duela baizik, honako hauek kontuan izanik:

- . abiapuntu egoerara heltzea lortzeko behar den jakintza transferentziak unibertsitateari dakarkion kostua: orduetan eta giza baliabideetan.
- . inguruaren ezagutza eta zerbitzua emateko erabili beharreko tresnak.
- . eskaintako hobekuntzak inplementatzeko modua.

BESTE BATZUK

2016ko ekitaldian zehar izaera bertsuko ondasun eta zerbitzu erosketak egin dira guztira 2,2 milioi euroren zenbatekoan; gure iritzira, EHUK aztertu egin behar lituzke horiek, berdindu daitezkeen hornigaiak eta aurreikusgarriak diren zerbitzuak bereiziz, kontratazioa prozedura bakar batean egiteko moduan (ikus 14.2).

ALEGAZIOAK

Gastu unitate organikoen sakabanaketa bera da -HKEEK aipatutakoa- gainbegiratze eta agregazio egokia eragozten duena. Hala ere, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzen ari dira.

A.14.2 ataleko 2. laukian jasotako gehiegizko fakturazioari dagokionez, Esparru Akordioak direnez, azaldutakotzat ematen da A.14.1 atalean eginiko alegazioa, indargabetu egiten duena oharra, are gehiago kontuan izanik UPV/EHUKen berezitasuna gastuaren deszentralizazioari dagokionez.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EHUk 2016an zehar 14 espediente egikaritu ditu zerbitzu publikoak emateko, jabari publikoko ondasunak erabiltzea dakarrena berekin eta denbora zehatz baterako eman ez zirenak (SPKLTBren 23. eta 278. artikulua eta EOLren 72. artikulua eta APOLen 93. artikulua). Gainera, kontratuaren prestazioak eta/edo prezioa justifikatuko duen azterketa ekonomiko-administratiborik ez da egin (APKLEOren 183. eta SPKLTBren 87. artikulua); ez eta ondasunak eskura uzteko akta ere, EHUk eta kontratistak izenpetutakoa (EOLen 69.4 artikulua) (ikus 14.2).

ALEGAZIOAK

Nabarmentzekoa da ezin daitezkeela fiskalizaziorako erreferentzia gisa erabili kontraturen oinarrian dagoen araudiaren ondorengo araudi bateko parametroak eta kontzeptuak. Oharra kentzeko eskatzen da, aipatzen diren hirugarrenak UPV/EHUREN kontratistak direlako, bere garaian aplikagarria zen araudiaren arabera izapidetutako kontratazio prozeduren esleipendunak. Hala, A.14.2 ataleko azken laukian transkribatutako zerrendan, lehenengo bederatzi espedienteak aurreko kontratu araudiaren mende daude.

EHUk 2016ko ekitaldian izenpetu dituen lankidetzak hitzarmenak aztertzean ikusi dugu lau hitzarmenek euren baldintzetan jasotzen dutela kontratu horiek berariaz adierazi gabe urteko aldietan luzatuko direla, iraupen zehatzik finkatu gabe (ikus 14.2).

ALEGAZIOAK

A.14.2 atalean, ez dira oharrak aipatzen dituen hitzarmenak identifikatzen. Urriaren 1eko 40/2015 Legea indarrean sartu aurretik sinatutako hitzarmenak badira, errepikatu egiten da 2015eko ekitaldiaren fiskalizazioaren harira eginiko alegazioa:

Urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, BOE 236, 2015eko urriaren 2koa) aldarrikatu arte, ez zegoen hitzarmenen indarraldia arautzen zuen inolako aurreikuspen espezifikorik. Aipatutako legea izan da, hitzarmenen edukia arautzean, indarraldiari buruzko arau argiak ezarri dituen. 49. artikulua h) letrak hauxe dio:

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hatu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:

a) (...)

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1. Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.



2. Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Legeak ez du ezartzen luzapenek berariazkoak izan behar dutenik, eta ez du debekatzen isilbidezko edo ustezko luzapenik. Egia da administrazio jarduera gidatzen duten printzipio orokorrek idatzizkoa lehenesten dutela, eta, ondorioz, kasu askotan berariazko luzapena dela gomendagarriena. Dena dela, egia da ere isilbidezko luzapena izan daitekeela, horrela ezartzen baldin badu hitzarmenak.

Beraz, kontuan izanik aipatutako legea 2016ko urrian sartu zela indarrean (BOEn argitaratu zen urtea), argiak dira zirriborroan aipatutako hitzarmenei buruzko ondorioak:

- . 2015eko ekitaldiari dagokionez, ezin zaizkie inolako eragozpenik jarri hitzarmenaren indarraldiari edo isilbidezko luzapenei.
- . Hala eta guztiz ere, unibertsitateak jada adierazi die hitzarmen bidez lotutako erakundeei hitzarmen berriak sinatzeko duen asmoa —edo, hala badagokio, indarrean dauden hitzarmenei dagokion adenda eranstekoa—, non lau urteko iraunaldia aurreikusiko den, 2016ko urritik 2020ko urrira, eta beste lau urtez luzatzeko aukera.

Aurretik adierazitakoagatik, eskatzen da txostenaren zirriborroan aipatutako hitzarmenei buruzko aipamenik ez egiteko 2016ko ekitaldiaren fiskalizazio txostenean.

IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

IV. 1 FINANTZA ANALISIA

EHU-REN KONTUAK

Ondorioa

Eraitza arruntak gora egin du, batik bat, transferentzia arruntek gora egin dutelako. Berebat, kapital-eragiketengatiko defizitak behera egitea, nagusiki, egindako inbertsioak murriztu izanaren ondorio da. Honenbestez, EHUren inbertsio gaitasuna ez da nabarmen hobetu eta inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa da, dela kapitalezko diru-laguntza bidez, dela beste zorpetze mota bat baliatuta.”

ALEGAZIOAK

Ondorio honek ez du islatzen unibertsitateak egin duen ahalegina ekitaldiko gastuak ahalik eta gehien arrazionalizatu eta murrizteko, eta horregatik izan da murrizketa esanguratsu bat gastu atal guztietan, pertsonaleko gastuetan izan ezik.

ABREVIATURAS

BOPV	Boletín Oficial del País Vasco.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CCAA	Cuentas Anuales.
DA	Disposición Adicional.
EPSV	Entidad de Previsión Social Voluntaria.
EU	Escuela Universitaria.
GOVA	Gobierno Vasco.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LFPV	Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
LGPE	Ley 22/2013, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2014.
LOU	Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades.
LOMLOU	Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, de modificación de la LOU.
LPAP	Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.
LPE	Ley de Patrimonio de Euskadi (Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi).
LSUV	Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.
MICINN	Ministerio de Ciencia e Innovación.
OARC	Órgano Administrativo de Recursos Contractuales.
OPE	Oferta Pública de Empleo.
OTRI	Oficina de Transferencia de Resultados de Investigación.
PAS	Personal de Administración y Servicios.
PCPCAE	Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
PDI	Personal Docente e Investigador.
PNCP	Procedimiento Negociado Con Publicidad.
PNSP	Procedimiento Negociado Sin Publicidad.
RD	Real Decreto.
RDL	Real Decreto Ley.
RLCAP	Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/ Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
UPV/EHU	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.





I. INTRODUCCIÓN

La fiscalización de la actividad económico-financiera del ejercicio 2016 de la UPV/EHU se efectúa de acuerdo con la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del TVCP/HKEE, estando incluida en su Plan de Trabajo.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legalidad: en las áreas presupuestaria y contable, personal y contratación administrativa.
- Contables: se analiza si las CCAA de la UPV/EHU se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Nuestro trabajo ha consistido en revisar el informe de auditoría externa de los estados contables presupuestarios y patrimoniales de la UPV/EHU, llevado a cabo por una firma externa, verificando su soporte en los papeles de trabajo de los auditores y realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.
- Análisis financiero de la UPV/EHU.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

Además, el alcance del trabajo ha incluido la fiscalización de las fundaciones a las que la UPV/EHU ha aportado el 100% de la dotación fundacional, y cuyas CCAA se incluyen como anexos en el Informe Económico de la UPV/EHU correspondiente al ejercicio 2016:

- Fundación Museo Vasco de Historia de la Medicina y de las Ciencias.
- Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU.

Asimismo, el anexo del Informe Económico incluye las CCAA de la Fundación Investigación Universidad Empresa, Jakintza Lanezko Ikerkuntza (Fundación Euskoiker) y de Euskampus Fundazioa. La UPV/EHU ha aportado a la dotación fundacional de las citadas fundaciones el 50% y el 33%, respectivamente.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

Personal

1. En 2016, la UPV/EHU ha abonado 672.888 euros en concepto de complementos y equiparaciones retributivas no contempladas en el RD 1086/1989, de 28 de agosto, sobre retribuciones del profesorado universitario (ver A.3).
2. El PDI con contrato laboral temporal a 31 de diciembre de 2016, supera el límite del 40% de la plantilla docente establecido en el artículo 48.5 de la LOU, en la redacción dada por la LOMLOU.

Contratación administrativa

3. En dos expedientes, adjudicados por 1,8 y 1,4 millones de euros (expedientes 21 y 24), el importe facturado supera al presupuesto máximo anual en 118.215 euros y 267.585 euros, respectivamente, alterándose las condiciones esenciales de la licitación y adjudicación (artículo 107 del TRLCSP) (ver A.14.1).

Por otra parte, en prestaciones para las que existen contratos en vigor en el ejercicio 2016, se han detectado gastos que exceden al importe adjudicado en 878.630 euros (ver A.14.2).

4. La Fundación Cursos de Verano, ha adquirido bienes y servicios por importe de 366.948 euros, sin respetar los principios de publicidad y concurrencia (ver A.15.2).

En opinión de este Tribunal, excepto por las salvedades descritas en los párrafos 1 a 4 anteriores, la UPV/EHU y sus Fundaciones han cumplido razonablemente la normativa legal que regula su actividad económico-financiera en el ejercicio 2016.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

